




# Pentsiodunek ere planto

Pentsiodunek kaleak hartu dituzte eta mobilizazioekin jarraitzeko indar txikiak batzen hasi dira. Durangon, Berrizen, Zornotzan eta lurretan protestak antolatzen ari dira. Zapatuan Bilbon egingo duten manifestazioa mugarriz izatea gura dute. • 2-3

## Aste biko epean lau eraso sexista salatuta dituzte Durangaldean

**Durangaldea** | Hiru emakumek eraso sexistak sufritu izana salatu dute asteon. Kasu horietako bi Durangon izan dira, eta bestea, Abadiñon. Euretako emakume bik osasun arreta jaso behar izan dute. Pilar Rios Durangoko alkateordeak duela bariku bi jasandako mehatxua kontuan hartuta, aste biko epean lau eraso gertatu dira eskualdean. Emakumeei babesa erakutsi eta erasoak gaitzesteko, elkarretaratze bana egin zuten atzo iluntzean Durangon eta Abadiñon. • 6



## Ur Arteako hiru langile, enpresa hitzarmena lortzeko borrokan

**Abadiño** | Elhadi Thior, Haraba Konate eta Idrassa Thior langileek lanuzte mugagabeari ekin zioten otsailaren 12an, enpresagaz hitzarmena lortzeko. Ur Artean enpresan dituzten lan baldintzak "oso prekarioak" direla salatu dute. • 7



## Zigor Iturrieta, Mexikon

**Zornotza** | ETBko 'Chiloe' programa grabatzen ari da Zigor Iturrieta. Mexikon izan da eta Alemanian jarri du hurrengo erronka. • 28



## Bizkaia Durango-Euskadi Muriasek Biran aritzeko gonbidapena jaso du

29. orrialdea



## Ur parkea jarri gura dute lurretan

**Iurreta** | Ibarretxe kultur etxearen ondoan kokatu gura dute parkea. Proiektuaren sustatzaileek aurkeztu dute lurretako Udaletxean. • 10



# “Pobreziaren atariaren gainetik dagoen pentsioa eskatzen dugu”

Astelehenero ehunka pentsiodun irteten dira kalera Durangaldean, “pentsio duinak” aldarrikatzeko. Antolatzen hasi dira eta atzera-bueltarik ez dagoela diote

**DURANGO** • AITZIBER BASAURI

**Kalera irten dira pentsiodunak. Haserre daude, eta nahikoa dela esan dute. Duintasunez bizi ahal izatea gura dute. Otsailean Bilboko kaleak bete zituzten milaka erretiratuk eta, martxoaren 17an, argazki hura are eta esanguratsuagoa bihurtu gura dute. Horretarako, herritar guztiak daude parte hartzerantz. Berriz, Durangon, lurretan eta Zornotzan antolatzen hasita daude, eta ordezkari bana batu du ANBOTOK mahai baten inguruan.**

**Urteak dira haserrea pilatzen. Azken tanta izan da hau?**

**Itziar Madariaga:** Hala da. Urte askoan egon gara eusten, geure buruari esanez zerbait egin beharko genukeela... eta, halako batean, pentsioak %0,25 igoko direla dioen gutuna heldu zaigu. Gutun-papereetan gastatutakoak gehiago balio du! Sare sozialen bidez haserre hori zabaldu da eta mugimendu hau sortu da.

**Matias Oregi:** Egon da halako gogo bat, ikus daiteke hori. Urte batzuk daramatzagu hau, bestea eta hurrengoa jaso eta horiei eusten. Nahikoa da esan dugun arte. WhatsApp bidez protesta egiteko deia zabaldu zen eta pentsiodunek erantzun egin dute. Asko entzun dugu gai askoren inguruan, eta oraingoan pentsiodunoi egokitu zaigu. Langileak gara, eta arlo horretan ari dira lanean erakundeak, baina ez dute ezer egin.

**Mari Tere Alberdi.:** Kokoteraino egon gara. Bakarririk sentitu gara.

**Maripi Mintegia:** Hedabideetan politikarien ahotik entzundako adierazpenekin gainezka egin dugu: badugula etxea, 80 urtera arte lan egiteko prest gaudela, erosteko ahalmena igo zaigula eta ea zertaz kezkatzen garen.

**Pentsioak %0,25 igo dituzte aurten. Inflazioa, berriz, %1,1. Jakinarazpenak bueltan bidaliz erantzun duzue pentsiodunok. Zerk aktibatu zaituzte?**

**Matias:** Egoerak berak.

**Itziar:** Berriz lapurreta egin izanak.

LENIOR ELORRIAGA

**Mari Tere Alberdi Olabegoia**  
Berriz | 1944

**Matias Oregi Arregi**  
Durango | 1945

**Maripi Mintegia Zuazo**  
Lurreta | 1945

**Itziar Madariaga Bilbao**  
Zornotza | 1944

**Pentsiodunak**

“**Urteko KPIaren araberako igoera eskatzen dugu, eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa**”

Dirua lapurtu dute, kartzelara sartu dituzte batzuk, baina non da dirua? Hartutakoa bueltatu behar dute. Gutuna bueltan bidali nuen.

**Itziar:** Neuk ere bai. Pentsioetarako dirurik ez dagoela diote, pentsio pribatuak egin daitezten esan eta esan ari dira. Nola? Ze dirugaz? Eguneroko gastuei aurre egin ondoren, ez zaigu dirurik geratzen.

**Zeintzuk dira zuen eskariak?**

**Matias:** Urteko Kontsumo Prezio Indizearen (KPI) araberako igoera eskatzen dugu, eta 1.080 euroko

gutxieneko pentsioa. Hori da gure borroka. Mobilizazioetan bi goiburu nagusitu dira: *Eskuak gora, hau lapurreta da* eta *Lapur gutxiago eta pentsio gehiago*. Atzean bestelako arazo batzuk daudela erakusten dute horiek, azaleratu beharrekoak. Adibidez, soldaten arrakaletik eratorria den pentsioen arrakala. Lan eskasagoak izan dituzte emakumeek, soldata baxuagoekin, eta horrek kotizazioetan eragin du.

**Beste behin, emakumeak dira prekaritatearen aurpegia. Bereziki**



Zornotzako elkarretaratzeko irudia.



Lurretako pentsiodunek Askondo kalean egiten dute protesta.





**emakume alargunek jasaten dute arrakala hori?**

**Mari Tere:** Bai. Dibortziatu arte, 20 urtean bizi izan nintzen senarragaz. Urte horiek kontuan hartzen dituen haren pentsioaren horrenbesteko bat dagokit. Huskeria bat. Lotsagarria. Eta ezin ezer esan. Isilik geratu behar. Lan egin dut, eta kotizatu izan dut. Bada, bi pentsioekin ez naiz 700 eurora heltzen. **Itziar:** Alargunoi senarraren pentsioaren %52 dagokigu, eta haren pentsioaren arabera, egoerak

oso desberdinak dira. 800 euroko pentsioa dagokit niri alargun lez. Baina nik ere bost urtean lan egin nuen, dagokiona kotizatuz, eta badut pentsio txiki bat, senarrarena osatzeko. Eskerrak horri. Beste askok ez dute horrelakorik.

**Matias:** Gainera, orain, diru-sarreak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko neurriak gogortu dituzte, eta horrek zuzenean eragin du pentsioetan. Izan ere, orain, unitate familiarra hartzen da kontuan.

**1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen duzue, Europako Gutun Sozialen gomendioari jarraituz. Pentsio duina litzateke hori?**

**Mari Tere:** Pobreziaren atariaren gainetik dagoen soldata, pentsioa, da eskatzen duguna. Hemen, 1.080 euro litzateke hori. Frantzian, adibidez, pentsio guztiak daude pobreziaren atariaren gainetik. Hemen ez da horrela. Argi esanda, bizi den lurraldeko batez besteko soldataren erdiaren azpitik jasotzen duena bizi da pobreziaren atarian.

**Pentsiodunen profil asko daude?**

**Matias:** Bai. Egoera onentsuan geratu diren %8 horren barruan nago ni, kotizatu dugulako. Emazteak eta biok pentsio bat dugu. Hala ere, emaztea alargunduko balitz, eta egon litekeen pentsiorik onenaren erdia kobratuta, pobreziaren atarian legoke, pentsio hori osatzeko beste bat ez balu behintzat. 400-500 euroko pentsio txikiak emakumeenak dira neurri handi batean. Horregaz bizi behar da. Ezin da.

“**Lan eskasagoak izan dituzte emakumeek, soldata baxuagoekin, eta horrek kotizazioetan eragin du**”

**Itziar:** Alargunona da egoerarik prekarioena. Oporretara joateko ere mugatuta gaude. Alaba eta bilobak ere nigaz bizi dira, eta, zorianez, alaba lanean dago. Gainera, etxeko lanek ez dute ezer balio.

**Mari Tere:** Ezta umeen zaintzak ere. Garai batean, umeak izatean, horretan lan egiten genuen.

**Maripi:** Ni ere egoera onentsuan nago, baina duela 51 urte lana utzi nuen, ezkontzeko; elizako abesbatzan ere abesten nuen, eta utzi egin nuen. Gizona, umeak, etxea... zaintzeko, dena utzi nuen. Horrek guztiak gure pentsioetan eragin du. Emakume asko miseria hutsa ari dira kobratzen.

**Pentsioei aurre egiteko dirurik ez dagoela dio Espainiako Gobernuak.**

**Maripi:** Gazteak lanik gabe daudela-eta, pentsioen kutxan dirurik ez dagoela diote. Hustu egin dela. Bai zera! Egon da dirua kutxa horretan, baina eskua sartu dute askok, bateko autobidea egiteko, besteko aireportua egiteko...

**Matias:** Gezur mordo bat esan dute, eta larriena da pentsioen kutxan zegoen dirua estatuaren zorra ordaintzeko erabili dutela. Dirua egon da, eta badago. Norentzat? Bankiarentzat, armadarentzat, azpiegiturak eraikitzeke, elizarentzat... Langile gutxiago dagoela eta pentsioetara ekarpen gutxiago egiten dela ere esan dute. Gezurra. Zenbat produzitzen den, hor dago gakoa, eta ez zenbat langile diren. Gainera, bada barnerarazi gura duten ideia bat: “Zuek baduzue pentsioa, guk ez dakit izango dugun”.

**Maripi:** Bai, eta ideia hori onartzen hasita daude batzuk. Aurreztea eskatzen zaiei gazteei. Finlandian moduan, euro bat asteen. Osasunerako beharko dutelako, igual, edo etxean eragozpen bat suertatuz gero aurre egiteko. Baina nola aurretuko dute lanik ez badute? Eta lana izanda ere, 700 euroko soldatagaz?

**Mari Tere:** Dena pribatizatu gura dute.

**Pentsioak ere bai?**

**Matias:** Aurrezteko eskatzen ari dira etengabe, eta hor atzean zain daude putreak. Banketxeak. Jakin behar da pentsio pribatuak iruzurra direla; dirurik gabe geratu dira asko bankaren deskalabruagaz. Garai batean, estatuak kotizazioe-

“**Alargunona da egoera prekarioena. Oporretara joateko ere mugatuta! Gainera, etxeko lanek ez dute ezer balio**”

“**Dirua egon da, eta badago. Norentzat? Bankiarentzat, armadarentzat, azpiegiturak egiteko...**”

“**Gazteei aurreztea eskatzen zaie. Nola, lanik ez badute? Eta lana izanda ere, 700 euroko soldatagaz?**”

kin ordaintzen zituen pentsioak. Kutxa batean batzen ziren kotizazio guztiak. Gero, Toledoko Ituna etorri zen. Soberan zegoen dirua kutxan, gero krisi ekonomikoa etorri zen arren. Kutxa horren kudeaketa nolakoa izan den argitu beharko litzateke. Kudeaketa garbia eta demokratikoa, hori behar da. Gauza asko daude argitzeko.

**Martxoaren 17an, Bilbora deituta gaude herritar guztiak. Gazteek ere kalera irten behar dute?**

**Mari Tere:** Bai. Gurasoekin bizi dira

asko, soldatak ez dielako ematen; lanik gabe daude beste asko. Denon artean indar gehiago egingo dugu.

**Itziar:** Hala da. Joan beharko lukete.

**Maripi:** Beraien etorkizuna da. **Matias:** Borrokatu beharra dute gazteek ere, eta Bilboko deialdia aukera ona izan daiteke kalera irteteko, astegunetan gaitzago dute-eta.

**Pentsiorik ez dutela izango sinetsita daude atzetik datozenak?**

**Matias:** Gezurak sinetsita daude. Mamu bat dago atzean. Munduko Bankuak emanda ditu jarraibideak: pentsio pribatuak egiteko konbentzitu gura gaituzte; pentsio publikoen jabe ere egin gura dute. Baina pentsio pribatuak beste lapurreta bat dira.

**M-15aren traza hartu zaio zuen mobilizazioari. Antolatzen hasita zaudete?**

**Matias:** Durangon batzorde bat osatu dugu, eta astelehenero egiten ditugu elkarretaratzeak, siglak kanpoan utzita. Herri guztiok elkarregaz koordinatu gura dugu. Bizkaiko Pentsiodunen Martxa ere hor dago. Edozein interlokuziotarako eta eskariak bideratzeko antolatu egin beharko gara. Durangaldean ere koordinatzen hasiko gara. **Maripi:** Gu ere hasi gara astelehenero kontzentrazioa egiten Iurretan, eta batzorde txiki bat antolatu dugu. Argi utzi dugu kolore eta ideologiarik gabeko mugimendua dela, pertsonen osatutako taldea.

**Mari Tere:** Aurretik gaude haserre. Orain lotsa galdu eta kalera irten gara. Berez, natauraltasunez, sortu da, baina antolatu beharra dugu.

**Itziar:** Zornotzan astelehenero egiten dugu kontzentrazioa, baina ez gaude antolatuta. Borrokan gaude eta datorren urtean haustekundeak ere badatoz; argi izan dezala jendeak nori eman botoa.

**Zer derituzoe politikarien jarrerari?**

**Matias:** Oportunista dela. Batzuei barregurea sortu zitzaizen hasieran. **Maripi:** Utzikeria, nahaste-borras-tea, itzela izan da. Sindikatuena lotsagarria izan da.



Berrizko pentsiodunek egindako manifestazioko irudia.



Durangon, udaletxearen aurrean egiten dute hitzordua astelehenero.



# “Europar eta Euskal Herrian hazten” dabiren arrazismoaren aurkako ekimenak, Zaldibarren

Zaldibar inklusiboaren alde lanean dabiren Zaldibarko Jendeak elkarteak eta IGEk antolatu dute egitaraua

**ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO**

Duela lau urte urratzen hasi zuen bidetik jarraitzen du Zaldibarko Jendeak elkarteak; zenbait jatorritako zaldibartarrek parte hartzen dute ekimenean. Duela lau urte, Aniztasun Jaia antolatzen hasi ziren; hainbat jatorritako zaldibartarrek herriari egiten dioten ekarpen kulturalari gorazarre egiten zaio bertan. Bigarren, Arrazakeriaren Kontrako Astea antolatu dute; jende baten partetik jasaten duten bazterketa salatzea du helburu. “Europa osoan zehar zein Euskal Herrian bertan zabaltzen ari da arrazakeria, eta kezka handiz ikusten dugu hori”, azaldu du elkarteak kide den Roberto Machok.

Aurtengo honetan, IGEagaz batera antolatuko dute Arrazakeriaren Kontrako Astea Zaldibarko Jendeak elkarteak. Egun, hamar bat kide osatzen dute taldea, baina ekimenera jende gehiago ere joaten da, laguntzeko asmoz. Batez ere, jatorri afrikarreko kideek osatzen dute elkarteak, eta horietako asko emakumezkoak dira. “Kuba-

tarrak ere badaude, eta jatorri euskalduneko zaldibartarrak ere bai”, azaldu du Machok.

Gaur, martxoak 16, ekingo diote egitarauari, umeentzako eskulaneekin. Ostean, kontzentrazioa egingo dute, pertsona guztientzat eskubi-

**Gaur ekingo diote egitarauari, umeentzako eskulaneekin; ostean, kontzentrazioa egingo dute**

**Jai batzordean parte hartu ohi du elkarteak, beste kultura batzuetako emanaldiak antolatzen**

de berdinak eskatzeko. Elkarretartzea 18:30ean izango da, udaletxe-ko plazan. Amaieran txokolatada bat egongo da. Eguaztenean, ostera, “arrazakeriaren aurkako peliku-



Hainbat estilotako musikari elkartu izan ditu Zaldibarko Jendeak elkarteak herria girotzeko.

la” bat eskainiko dute. Emanaldia liburutegian izango da, 18:30ean.

**Herri mugimenduaren parte**

Zaldibarko Jendeak elkartearen asmo nagusietako bat Zaldibar inklusiboa eraikitzen laguntzea da. Horretarako, udalaren harrera protokoloan laguntzen du, adibidez. Machoren esanetan, euskarak indarra hartuko du protokolo horretan. “Umeek ikasi egiten dute, eta gurasoei ere ikasteko erraztasunak eskaini behar zaizkie”, adierazi du. Horrez gainera, herrian egiten diren beste hamaika ekitalditan ere parte hartzen dute. San Andres jaietan, adibidez, ohikoa da sardina janean laguntzea; horrez



Aniztasun Jaia ere antolatu dute hiru urtean; irailen laugarrena antolatuko dute.

gainera, jai batzordean ere parte hartzen du elkarteak, beste kultura batzuk erakusteko emanaldiak antolatzen, batez ere. Baina beste-

lako ekimenera ere parte hartzen dute. Adibidez, Barrura egitasmoak berriki egindako alokairu sozialaren proposamena babestu dute.

## Izurtzak laugarrenez hartuko du, domeka honetan, Durangaldeko Txistulari Eguneko jaiak

13:00etan kontzertua eskainiko dute Izurtzako elizan

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Izurtzan Durangaldeko Txistulari Egunearen 63. aldia egingo dute domeka honetan. Laugarrenez egingo dute Izurtzan, 1971ko, 1991ko eta

2004ko ekitaldien ostean. Lehenengo, 10:00etan elkartu, lau taldetan banatu, eta auzorik auzo ibiliko dira giroa berotzen. Ondoren, 13:00etan, kontzertua eskainiko

dute elizan. Jaizale Durangaldeko Txistularien taldeko txistulariek askotariko musikarigaz (Carlos Sanchez tronpetaria, Urtun Gerrikaetxeberria gitarrista...) eta abeslarigaz (tenoreak, sopranoak...) elkarlanean antolatu duten kontzertua izango da. Mendi Gain dantza taldeak eta Felipe Zelaieta bertsolari mallabitarrek ere parte hartuko dute Eleder Iturrietak zuzenduko duen kontzertuan. Ostean, Mendi Gain taldeak Erregelak dantzatuko ditu, plazan.



50 bat musikari batuko ditu eguerdian Izurtzako elizan eskainiko duten kontzertuak.

**anboto** komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko martxoaren 16a  
16. urtea - 713. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK



# Elkoroiribe Durangoko EAJko alkategai legez berretsi dute, eta "ilusioz" hartu du izendapena

2019ko udal hauteskundeetarako urtebete baino gehiago falta da, eta Elkoroiriberen izendapenagaz hasi da lehia

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Ofiziala da dagoeneko. Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia izango da EAJren alkategaia 2019ko udal hauteskundeetarako. Zita horretarako urtebete baino gehiago falta den arren, jeltzaleek egin dituzte etxeko lanak, eta, horrela, lasterketa elektoralari hasiera eman zaio. Aitziber Irigorasek otsailaren 15ean iragarri zuen ez dela berriro aurkeztuko, alkate karguan 2008az geroztik egon eta gero.

Durangoko jeltzaleek duela aste bi egin zuten hautagaia auke-

**Aitziber Irigorasek  
otsailaren 15ean  
iragarri zuen ez dela  
berriro aurkeztuko**

ratzeko prozesuko lehen txanda, eta Elkoroiriberena izan zen proposamen bakarra. Eguaztenean, bigarren bueltan, izendapena berretsi zuten. Irigorasen iragarpenetik hilabete bakar batera etorri da erabakia.

**Osasun sailean lanean**

Alkategai izateko izendapena "ilusio eta konpromiso handiz" hartu duela azaldu du Elkoroiribek. 42 urte ditu, eta uneotan Eusko Jaur-

laritzako osasun sailburuaren kabineteko arduraduna da. Aurretik beste zenbait ardura eduki izan ditu; aurreko legealdian Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura saileko aholkulari izan zen, eta 2007tik 2009ra Garraio zuzendari, adibidez. Beraz, kargu politiko eta publikoetan esperientzia duen emakume bat hautatu du EAJk hauteskundeen lehiarako.

Ikasketei dagokienez, Publizitate, Harreman Publiko eta Marketingean graduatu zen Londresen, Barne Komunikazio masterra egin zuen Madrilen eta Turismoan diplomatu zen Deustuko Unibertsitatean.

**Aurreko legealdian  
Hezkuntza, Hizkuntza  
eta Kultura saileko  
aholkulari izan zen**

**Irigoras, unibertsitatera**

Ziarrusta ezustean hil zenean hartu zuen kargua Irigorasek, alkateorde zela. Unibertsitateko irakasle lanetik eszedentzia hartuta egon da ordutik, eta, bere esanetan, lan horretara bueltatzeko nahia izan da berriro ez aurkezteko arrazoi nagusia.



Osasun sailburuaren kabineteko burua da gaur egun 42 urteko durangarra.

**'Domekäero' aisialdi ekimena gurasoekin ez dela kontsultatu kritikatu dute**

**DURANGO • M.O.**

Durangoko Familiak taldeak poztasunez hartu du *Domekäero* ekimenaren sorrera, baina hainbat zalantza sortzen dizkiola ere aipatu du. Lehenik eta behin, ohartarazi dute ekimenaren inguruan ez zaiela erabiltzaileei iritzia kontsultatu.

Ekainera arteko epea izanik, zerbait puntuala izatea kritikatu dute, eta, gainera, sasoiaren ere ez dute uste egokia denik, eguraldiagatik. Ez dute ondo ikusten eskaintza mugatua izatea, ezta hile osorako apuntatu behar izatea ere.

Udalak, Berbarok eta Plateruenak antolatuta dute *Domekäero*. 6-14 adin tarteko 100 ume-rentzat jolasguneak zabalduko dituzte domeka arratsaldetan.

**EHEren manifestazio nazionalera joateko autobusa ipini dute Durangon**

**DURANGO • M.O.**

EHEk manifestazio nazionalera deitu du martxoaren 24rako, Iruñean, 17:30ean. Durangoko kideek autobusa ipiniko dute, eta Plateruenean eta Intxaurren egongo da apuntatzeko aukera. Autobusa 14:45ean aterako da Madalenatik, eta 21:30ean egingo du buelta Iruñetik. "Euskarari eta euskal herritarroei ezartzen zaizkigun mugak gainditu eta euskararen normalizazioan jauzi egiteko burujabetza eskuratzera" dei egin dute.

**Durangoko Txosna Batzordea herritarren ideiak jasotzeko prest agertu da**

**DURANGO • M.O.**

Durangoko Txosna Batzordeak aurtengo jaiak prestatzeari ekin dio dagoeneko. Sarean zabaldu duten bideoan azaltzen dutenez, aste honetan urteko hirugarren bilera egin dute, lan-taldeka antolatu eta funtzionamendua hobetze aldera. Berrikuntza modura, talde feminista martxan jarri dute barnean. Bestalde, herritarren ideia eta ekarpenak jaso gura dituzte, [pantxiketxosnenelkartea@gmail.com](mailto:pantxiketxosnenelkartea@gmail.com) helbide elektronikoan.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Kirola eta elkartasuna eskutik helduta joango dira domeka honean, Durangon. Izan ere, Geu Be elkartearen aldeko zumba maratonia egingo dute, Landako I kiroldegian, 10:30etik 13:00etara bitartean. Hirugarren edizioa beteko du Maria Elgezua eta Olga Otero zumba irakasleek antolatzen duten elkartasun maratoiak. Sarreak salgai dituzte begiraleek, eta eskuragarri egongo dira baita ere Geu Beren egoitzan, kiroldegian eta Abadiñoko Simply hipermerkatuan. 7 euro balioko dute, elkartasun-dohaintza lez eskatu dutena, hain zuzen ere.

**Irakasleen laguntza**

Hainbat zumba irakasleren laguntza edukiko dute. David Diaz eta Samira Talha ezagunez gainera, Monica Solano, Eneko Aretxabala, Sara Martin, Sef Hamami, Alberto Muñoz, Itziar Lopez, Ronald Delgado eta Itziar Walls ere egongo dira.

Iaz ehunka lagun batu ziren, eta aurten kopurua handitzea espero dute antolatzaileek.

## Geu Be elkartearen aldeko zumba maratonia egingo dute domekan

Landako I kiroldegian izango da elkartasun maratonia, 10:30etik 13:00etara bitartean



Iaz ehunka lagun batu ziren zumba dantzatzeko prest.



# Durangoko eta Abadiñoko 3 emakumek eraso sexistak sufritu izana salatu dute asteon

Riosi eginiko mehatxuagaz, aste biko epean 4 eraso izan dira argitara atera direnak



Joan zen eguenean, martxoaren 8ko mobilizazioetan ehunka emakumek parte hartu zuten.

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Martxoaren 8ko feminismoaren indar erakustaldiaren ostean, errealitate gordina bueltan da berriro. Durangoko eta Abadiñoko hiru emakumek eraso sexistak sufritu izana salatu dute asteon; aste biko epean lau izan dira, Pilar Rios Durangoko alkateordeak duela barikua bi pairatutako mehatxua kontuan hartuta.

Aste honetan publiko eginiko lehen eraso astelehenean izan

zen. Urruntze agindua daukan 21 urteko gizon batek 19 urteko bikotekideari eraso egin zion Durangon. Gizon bat emakume bat jazartzen ari zeneko abisua jaso zuen Ertzaintzak, eta Iurretako N-634 errepidearen ondoan aurkitu zituzten. Emakumea artatu zuten eta Durangoko udaltzainek gizona identifikatu zuten. Ertzaintzak oharrean azaldu duenez, emakumeak azaldu zien gizonak borra luzagarri batez eraso egin ziola.

## Urruntze agindua daukan 21 urteko gizon batek 19 urteko bikotekideari eraso egin zion Durangon

Beste eraso biak martitzenean gertatu ziren. Durangon, 44 urteko gizon bat salatu zuen emakume batek. Ertzainek artatu zuten erasoaren ostean. Abadiñokoaren kasuan, gaez izan zen eraso, 22:20

bueltan. Emakume batek Ertzaintzara deitu zuen, bere bikotekideak jo egin zuela salatzeke. Buruan kolpe bat eman zion, eta belarritik odoletan geratu zen. Ertzainak agertu, eta etxean bertan atxilotu zuten gizona.

Hiru emakumeak babestu dituzte Durangoko eta Abadiñoko

## Emakume batek Ertzaintzara deitu zuen, bere bikotekideak jo egin zuela salatzeke

udalek, eta atzorako mobilizazioetara deitu zuten. Abadiñon Muntzaratz auzoan egin zuten, eta Durangon Andra Marian.

## Ardanza, kartzelara

Pilar Rios mehatxatu zuen gizona, Felipe Ardanza, kartzelara bidali dute azkenean. Ofelia Hernandez hiltzeagatik 17 urteko zigorra ezarri zioten, eta 11 bete ostean hiru garren gradua eman zioten. Iaztik libre zegoen, eta epaileak berriro kartzelaratzera erabaki du. Riosi eginiko erasoaz aparte, gizonaren bikotekideak ere mehatxua jaso izana salatu zuen.

Hain zuzen ere, joan zen barikuan, alkateordeari babesera erakusteko kontzentrazioa egin zuten hainbat lagunek Durangon.

## Astelehenetik aurrera udaleku irekietan izena emateko aukera egongo da Berrizen

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailerako antolatu dituzten udaleku irekietan astelehenetik aurrera eman ahal izango dute izena berriztarrek. Udaletik jakitera eman dutenez, izen-ematea astelehenean, martxoak 19, hasiko da, eta apirilaren 13an bukatuko da. Izena eman gura dutenek Berrizko Udaltzainaren egin dezakete hori.

Bestalde, Berrizko Udalak jakitera eman duenez, udalekuek gazteak lau taldetan banatuko dituzte, adinaren arabera, aurreko urteetan bezala. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen udalekuak uztailaren 4tik 25era izango dira. DBHko ikasleen kanpamentuak, berriz, uztailaren 9tik 20ra bitartean izango dira.

## Haizeteek botatako adarrak sutarako aprobetxatzeko aukera dago

### OTXANDIO • J.D.

Neguko haizeteek zuhaitzetako hainbat adar bota dituzte herriko hainbat puntutan. Egur hori herritarrek aprobetxatu dezaketela pentsatuz, eskuragarri jarri dute. Egurra eskuratzeko interesa dutenak udaletxetik pasatu daitezke informazioa eskatzera edo eskaera orria betetzera. Martxoaren 21ean, datorren asteko eguaztenean, amaituko da eskaerak egiteko epea. Ondoren, eskaerak aztertuko dituzte.

## Denboraren gestioari buruzko berbaldia pertsona nagusientzat

### GARAI • MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoko adinekoen sailak ikastaroak eta berbaldiak antolatzen ditu herririk herri, eta datorren martitzenean, hilaren 20an, Garain egongo dira hitzaldi bat eskaintzeko asmoz. Hain zuzen, denboraren gestioari buruzko saio bat izango da. Ana Martin psikologoak eguneroko denbora kudeatzeko aholkuak emango dizkie herriko pertsona nagusiei. 17:30ean hasiko da berbaldia, kultur etxean.

# Udalekuak modu parte-hartzailean antolatuko ditu Marixurrike elkarteak

Martitzenean zabalduko du aisialdi elkarteak udaleku irekietako izen-ematerako aukera

Horrez gain, udaleku parte-hartzaile, dinamiko, aktibo eta irekien izen-ematea martitzenean, martxoak 20, hasiko dela esan dute. Hala ere, behin inkesten tartea

## Herriko gaztetxoei hitza emanda antolatuko dituzte udaleku irekiak, aurretik, Atxondon

bukatuta, izen-ematea non egin beharko den jakinarazi dute. "Ziur gaude herriko gaztetxoen eta gurasoen iritzia jasota udaleku mundialak antolatuko ditugula. Beraz, bertan parte-hartzera gonbidatzen zaituztegu", bukatu du Rodriguezek.



Joan zen udan lurretara egin zuten irteera aisialdi elkartekoek.

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Marixurrike aisialdi elkarteak udalekuak modu parte-hartzailean antolatuko dituztela jakitera eman dute. Arantza Rodriguezek adierazi duenez, "urtetik urtera zaintzarako bihurtu diren udalekuei buruzko gogoeta egin dugu, eta Atxondoko gaztetxoak herriko udalekuek geratzea gura dugu". Hori horrela, eta herriko gaztetxoei hitza emateko asmoz, Marixurrike elkarteak Herri Eskolara joan dira, zer egin gura duten galdetzeraz. "Guretzat ezinbestekoa da herriko gazteek udalekuek egin gura dituzten ekintzen berri izatea", jarraitu du Rodriguezek.

Bestalde, atxondar guztiengana heltzeko asmoz, Facebooken inkesta bat jarri dutela jakinarazi dute Marixurrike aisialdi taldekoek. "Gehien errepikatzen diren eskakizunekin udalekuak antolatu eta aurrera egiten saiatuko gara", esan du Rodriguezek. Inkesta bete gura dutenei jakinarazi diete gaur amaituko dela horretarako epea.



# Ur Arteako langile talde batek hilabete darama greban enpresako hitzarmena lortzeko

Otsailaren 12an abiatu zuten lanuztea; urtarrilean egindako hauteskunde sindikalen emaitza ez du aitortzen enpresak

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Martitzenean, hilak 12, hilabete bete zen Elhaddi Thiorrek, Haraba Konatek eta Idrassa Thiorrek greba mugagabeari ekin ziotenetik. Matiena auzoan dagoen Ur Artea galdategiko langileak dira hirurak, eta enpresako hitzarmena lortze aldera abiatu zuten protesta. Beraien berbetan, baldintza “oso prekarioetan” egiten dute lan. “Hamar ordu egiten dugu lan egunero, astelehenetik barikura, eta arduradunak horrela nahi izanez gero, asteburuetan ere beharrera joan behar dugu; ordu estrak nola ordaindu ez dago adostuta, gainera”, azaldu du Konatek. “Lan baldintzei buruz berba egitea gura dugu, besterik ez”, gehitu du Idrassa Thiorrek.

Konatek zazpi urte daramatza Ur Artean beharrean. Idrassa Thiorrek, oster, lau urte. Biek

kontratu mugagabea dute enpresan. Ez horrela Elhaddi Thiorrek; obra kontratuagaz dabil bera. Egoera prekarioak bultzatuta, Konatek ELAn eman zuen izena. Lankideei informazioa ematera

**“Hamar ordu egiten dugu lan astelehenetik barikura; asteburuetan ere bai, aginduz gero”**

joan ziren sindikatuko aholkulariak gero, eta ostean, urtarrilean, hauteskunde sindikalak egin zituzten enpresan; Konate bera ordezkari izendatu zuten. Orditik, baina, egoera are gehiago gaitzotuta da. Prozesu horretan, bi beharginak kaleratu zituzten, gainontzeko beharginentzako abisu moduan,



Elhaddi Thior, Haraba Konate, Jon Iñaki Etxebarria eta Idrassa Thior, Ur Artea parean, protestan.

**“Guk akordioa lortzea lehenesten dugu, baina enpresak ez du gugaz batu ere egin gura”**

Thiorren eta Konateren arabera. Beraiek ordezkatzeko, beste lau lagun kontratatu dituzte.

### **Itxaropen faltsuak**

Enpresak azken hilabeteetan izandako jarrera salatu dute langileek, izan ere, negoziatioak ez doaz bide

onetik. Jon Iñaki Etxebarria ELA-ko sektoreko arduradunak ez du enpresaren jarrera ulertzen. “Guk akordioa lortzea lehenesten dugu, baina enpresak ez du gugaz elkartu ere egin gura”, esan du. “Gainera, akordiorako itxaropen faltsuak eman dizkigute”, dio Konatek.

basque  
FEST  
www.basquefest.com

market  
sport  
gourmet  
musika

MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 1ERA  
BILBAO  
DEL 28 DE MARZO AL 1 DE ABRIL  
DU 28 MARS AU 1er AVRIL  
FROM 28 MARCH TO 1 APRIL

BILBAO BIZKAIA be basque  
EUSKADI BASQUE COUNTRY  
AL  
meteo basque  
eitb  
EL CORREO  
Deli



**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

2014ko ekainaren 10ean Durangotik Iruñera egindako giza katea mila herritarren memorian geratu da. Mobilizazio gaitasun handia erakutsi zuten erabakitzeke eskubidearen aldekoek, eta, gainera, hori jai-giroan eraman zuten aurrera. Alaitasuna eta parte hartzeko go-go nabari ziren bide bazterretan. Bada, aurten ere beste giza kate erraldoi bat antolatzeke martxan dago Gure Esku Dago; ekainaren 10ean izango da berriro, eta Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko ditu. Tartean, Durangaldeko herri hauetatik pasatuko da: Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotza. *Eman eskua etorkizunari* izango da ekimenaren lema nagusia. “Euskal Herriko historian egon den mobilizaziorik handiena” bihurtzeko erronka bota dute Gure Esku Dagokoek.

Hiru hilabete falta dira mobili-

**Herri hauetatik pasatuko da: Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotza**

zazioaren egunerako, eta herririk herri hasi dira giza katearen berri ematen. Gure Esku Dago dinamika-kideen arabera, 100.000 lagunetik gora beharko dira Donostiatik Gasteizerako katea osatzeko, eta, horregatik, izena emateko aukera zabalduko dute datozen egunetan. Herrietan hasiko dira inskripzioak batzen, eta [www.gureeskudago.eus](http://www.gureeskudago.eus) webgunean ere egin ahalko da.



2014an milaka lagunek parte hartu zuten giza katean.

## Beste giza kate erraldoi baterako martxan dago Gure Esku Dago

Ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituzte mobilizazio batez

**Oiarbideren bira**

Durangoan, herri batzarra antolatu dute martxoaren 20rako; Artekaleko lokalean izango da, 19:00etan. Gure Esku Dagoren bozeramaile Angel Oiarbide berbaldi bira egiten ari da. Eguaztenean Elorrioren egon

**Durangoan, herri batzarra antolatu dute martxoaren 20rako; Artekaleko lokalean izango da**

zen; gaur, Zornotza Aretoan *Elkarrekin Together* pelikularen ostean egingo du berba –20:15ean hasiko da proiektzioa–; hilaren 21ean, ostera, Abadiñoan Txanporta kultur etxera joango da *Herritarron Itunari* buruz azalpenak ematera.

Bestalde, Abadiñoan tailer parte-hartzaileak garatuko dituzte hilaren 22an, 19:00etan, Errota kultur etxean. *Herritarron Ituna* osatzeko arrazoiak batzea izango da zeregina, ekintzaren arduradunek azaldu dutenez.

**Berbaldiak Elorrioren**

Elorrioren berbaldi sorta prestatu dute. Hurengo apirilaren 18an izango da, Javier Urizar ekonomialariaren eskutik. Apirilaren 25erako eta maiatzaren 2rako ere iragarri dituzte hitzaldiak.

**Gure Esku Dagoko kideen arabera, 100.000 lagunetik gora beharko dira**

## Zaintzaileak kontratatzeke aholkuak emango dituzte

**DURANGALDEA • M.O.**

Gero eta etxe gehiagotan, kanpoko norbait kontratatzea erabakitzen dute adineko pertsonak zaintzeko. Familiek izan ahal dituzten zalantzak argitzeke asmoz, berbaldi bat antolatu dute *Zaindu* programako arduradunek, Caritas elkarteagaz batera. Gainera, beharginen erregulazioaz ere berba egingo dute. Martxoaren 20an izango da informazioa lortzeko aukera, 18:15ean, Durangoko Adinekoen Udala Egoitzan.

**Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten senideei laguntzea da helburua**

Bestalde, zahartzaroan izan gura dugun arretaz ere berbaldiak egongo dira; Elorrioren hilaren 21ean, Traña-Matienan apirilaren 10ean, Durangoan apirilaren 11n eta Abadiñoan maiatzaren 9an. Berbaldi hauek Bizidun elkarteagaz eta Osakidetza-gaz batera prestatu dituzte.

Amankomunazgoak eta Durangoko Udalak sustatzen dute *Zaindu* programa, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten senideei laguntzeko helburuz.

## Osasun Zentrorako irisgarritasuna hobetzeko lanak egingo dituzte

Obrak amaitzean, ambulanziaz sarrerako atearen ondo-ondoan geratu ahal izango dira



Mallabiko Osasun Zentrorako sarrera.

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Osasun Zentrorako irisgarritasuna hobetzeko lanak esleitu ditu udalak. Bermeosolo enpresaren eskutik dituzte, 47.500 eurotan. Lanak

Aste Santu ostean hasiko dituzte eta hilabete biko epea izango dute amaitzeko.

Guztira, hiru enpresa gonbidatu zituzten lehiaketara. Bik aurkeztu

zituzten eskaintzak eta Bermeosoloren izan da onena.

Osasun Zentrorako sarrera irisgarriago egingo dute bertara doan edonorentzat. Esaterako, ambulanziaz

**Lanak Aste Santu ostean hasiko ditu Bermeosolok eta hilabete biko epea izango du amaitzeko**

tziek Osasun Zentrorako atearen ondo-ondoan geratzeko aukera izango dute. Orain ezin dira ate ondaraino joan. Ambulanziaz urrunago geratu behar da, eta bidearen erdian, gainera. Sarrera berrantolatuta, ambulanziaz doazenek askoz gertuago izango dute Osasun Zentrorako sarrera.

## Adinekoen beharrei irtenbideak emateko egitasmoa abiatu dute

Bost urteko programa da. Lehen urte bietan diagnostikoa egin eta hurrengo hiruretan ekintza plana gauzatuko dute

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Iaz azterketa soziodemografiko bat egin zuen udalak, herriko biztanleriaren inguruko errealitatea ezagutzeko. Azterketa horren ondorioetako bat bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako herritar dezente daudela izan zen eta, gainera, auzoetan bizi direla. Hori horrela, adinekoen bizimodua hobetzeko, bost urteko iraupena izango duen Mañaria Lagunkoia izeneko proiektua abiatuko du udalak. “Adineko pertsonetikiko lagunkoia den herria herritar guztiekiko

**Ikerketak azaleratu du bakarrik bizi diren 60 urtetik gorakoak daudela eta auzoetan bizi direla**

herri lagunkoia da”, adierazi du Endika Jaio alkateak.

Lehenengo urte bietan egoeraren diagnostikoa egingo dute. Irailtik 2019ko martxora zortzi tailer

**Endika Jaio: “Adineko pertsonetikiko lagunkoia den herria herritar guztiekiko lagunkoia da”**

parte-hartzaile burutuko dituzte. Horrez gainera, askotariko eragileekin (zaintzaileak, medikua, arkitektoa...) batuko dira, ahalik eta diagnostikorik osatuena egiteko.

Hurrengo hiru urteetan, diagnostikotik irteneko ekintza plana errealitatera eraman gura dute.



# Anbotoren lagunak



**Egin zaitez  
Anbotoren Lagun,  
eta atera etekina  
txartelari!**

**Babestu proiektua urtean  
30 euroren truke**

**Honako denda eta zerbitzuek deskontuak aplikatuko dizkiete ANBOTO txartela duten erabiltzaileei:**

- A-METZ DEKORAZIOA · BETIXU JATETXEA · COLOR PLUS · EPOCA SUKALDEAK · EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
- GIMNASIO ZIRKIN · HITZ LIBURU-DENDA · HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA · ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA
- IURRETA KOPISTEGIA · KATXARRO JATETXEA · KIROL ERROTA GIMNASIOA · LANDAKO OPTIKA
- MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA · NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA · OPEN KLUB · PLATERUENA KAFE ANTZOKIA
- UNAMUNZAGA ETXEBARRIA · HORTZ-KLINIKA · UNDARRI BIKE · URRIKE LIBURU-DENDA · UR URDAIBAI



# Ur parkea egin gura dute Ibarretxe kultur etxearen alboko zelaian

Proiektuaren sustatzaileak egitasmoa gauzatzeko aurreproiektua aurkeztu du lurretako udaletxean. Ez litzateke iraunkorra izango, uda sasoirako bakarrik zabalduko litzateke



Ur parkeak 4.000 metro koadro inguru hartuko litzateke.

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Ekimen pribatu batek ur parkea eraiki gura du Ibarretxe kultur etxearen alboan, eta dagoeneko aurreproiektua aurkeztu dute udaletxean. Ināki Totorikaguena

alkateak azaldu duenez, egitasmoa gauzatzeko bete behar diren baldintzak zeintzuk diren argitu diete proiektuaren sustatzaileei. Hartara, baldintza horiek jasotzen dituen proiektua aurkeztea litza-

teke hurrengo pausoa. Horregaz ur parkea eraikitze baimena eman ala ez erabakiko luke Iurretako Udalak. Ur parkea ez litzateke iraunkorra izango, uda sasoirako bakarrik zabalduko lukete.

Ibarretxe kultur etxearen alboan proposatu dute ur parkea egitea, eta 4.000 metro koadro inguru hartuko litzateke. Besteak beste, lauzpabost igerileku, txirristak eta olatu artifizial bat egongo lirateke ur parke horretan. Iurretako alkatearen berbetan, "proiektu polita" da ur parkearena. Gaineratu duenez, "herriarentzat ona izan liteke, eta beharrezko baldintzak betetzen badira ez dugu aurrera egiteko eragozpenik ikusten". Oraingoz, aurreproiektu bat, "asmoen agiri bat" baino ez da udaletxean aur-

“**Besteak beste, lauzpabost igerileku, txirristak eta olatu artifizial bat egongo lirateke ur parkean**”

keztu dutena, alkateak dioenez. Ur parkea eraikitze proiektua aurkeztu ondoren, eta udalak baimena ematea erabakiz gero, epeak zehaztuko lirateke. Pentsa daiteke egitasmoaren sustatzaileek uda sasoiaren aurretik zabaldu gurako dutela ur parkea. Bestalde, proiektuak zeresana eman du Durangaldean. Azken egunotan, sare sozialetan bolo-bolo ibili da aquaparka egiteko asmo hori.

## ‘Auzorik auzo’ kultur egitaraua abiatuko dute, zapatuan, Bakixa auzoan

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Xabi Aburruzagak eskainitako emanaldiak abiatuko du, gaur, *Auzorik auzo* kultur egitaraua Bakixa auzoan. Emanaldia 18:00etan hasiko da. Aurten bigarren antolatuta da ekimena, eta kultur ekitaldiak auzoetara hurbiltzea du helburu.

Hurrengo emanaldia apirilaren 14an izango da. Oromiño auzoan izango da hitzordua orduan, eta Kherau folk taldeak joko du bertan. Azken emanaldia *Herri Maitte* akordeoi taldeak eskainitakoa izango da. Maia-

**Emanaldi guztiak 18:00etan hasiko dira eta, ondoren, luntxa eskainiko dute**

tzaren 19an izango da, Amatza auzoan. Saio guztiak 18:00etan hasiko dira eta doan izango dira. Ondoren, luntxa ere eskainiko zaie bertaratzen diren guztiei.

## Pulla-Azkarretako planaren erabakiak hautsak harrotu ditu berriz ere udalean

**ELORRIO** • MARCEL ONAINDIA

Joan zen astean jakin zen erki-degoko Auzitegi Nagusiak atzera bota duela Pulla-Azkarretako industrialdeko plana, txosten batzuk ez aurkezteagatik. Eta gaiak hautsak harrotu ditu berriz udalean. Plan hori onartu zenean EAJ zegoen udal gobernuan, eta egungoak, EH Bildukoak, jeltzaleak kritikatu ditu sasoi hartan “akats larriak” egiteagatik. “EAJk behin eta berriro erakutsi digu presaren presaz egiten dituela gauzak”, adierazi dute. Gainera, jeltzaleen partetik “presioa” jasan izana salatu dute, prozesu judizialean amore eman ez zezaten.

EAJk esan du “erabat errespetatzen” duela epailearen erabakia. Baina, forma akatsak kenduta, plana bere horretan zilegi dela erakusten duela ere nabarmendu du. Horregatik, berriro tramitatzeko eskatu dio EH Bilduren gobernuari. “EH Bilduri eskatzen diogu hazkunde ekonomiko eta industrialaren aldeko apustu erabakigarria egin dezala”, adierazi dute.

# Udan ume sahararrak hartzeko familiak behar dituzte Elorrion

Lajwa elkarteak ekitaldia antolatu du gaurko, 17:00etan, plazan



Lajwad elkarteko kideak, Tindufen.

**ELORRIO** • JONE GUENETXEA

Elorrioko familiek ume sahararrak etxean hartzeko kanpaina jarri du martxan Lajwad elkarteak. Udan 10-12 urteko haurrak etorriko dira, neskak eta mutilak. Udako bi hilabete, uztaile eta abuztua, emango dituzte Elorrion. Bidaia baliatuz, mediku-azterketak eta hortz-haginen eta begien azterketak egingo

dizkiete haurrei. Familiek ez dute haurraren garraio gasturik ordaindu beharko, Elorrioko Udalak finantzatzen ditu-eta hegazkina eta aireporturako joan-etorriak. “Hainbat familia izan dira dagoeneko Elorrion haurren bat hartu dutenak, eta galdetu haiei beldurrik gabe, euren esperientziaren berri emateko”, diote Lajwad elkar-

teko kideek. Informazio gehiago udaletxean bertan edo 656714551 telefonora deituta jaso daiteke, edo [lajwadelorrio@gmail.com](mailto:lajwadelorrio@gmail.com) helbidera mezua idatzita.

Elkarteak ekitaldia antolatu du gaurko, 17:00etan, Elorrioko plazan. Haima eta henna tailerrak, tea, musika, proiektzioa eta merkatu txikia izango dira bertan.

## Jauregibarria etorbiderainoko espaloiak amaitzeko lanak hasi dituzte

**ZORNOTZA** • J.D.

Zornotzako Udalak Nafarroa kaleko aparkalekuaren ingurua urbanizatzeko lanak hasi ditu. Lan horien barruan, Nafarroa kalearen eta Jauregibarria etorbidearen artean dagoen aparkalekuaren inguruko espaloiak

**Oinezkoentzako hiru pasabide ere egingo dituzte oinezkoen joan-etorriak errazteko**

amaituko dituzte. Aparkalekuaren iparraldean eta mendebaldean espalo bi egingo dituzte, hiru metroko zabalerakoak.

Inguru hartan oinezkoen hiru pasabide berri ere egingo dituzte: Aita Santi Onaindia oinezkoen kalearen luzapenean bat eta aparkalekurako sarbidean beste bat. Hirugarrenak Enrike Renteria eta Nafarroa kaleen arteko komunikazioa hobetuko du. 105.000 euroko aurrekontuagaz, lanak hile bian amaitzea aurreikusten dute.





Segun Lazkano. Eraz

## Hareek denporak!

# ABADIÑARRAK TXISKOLA PROGRAMAN GARAILE

Umorearen unibertsitatean katedradunak dira Eneko Iturriagaetxebarria, Jon Mardaras eta Luis Mari Agirre. ETBko Txiskola programan atera zuten titulu, 1995eko abenduan. Lehiakide bizkaitar gutxi zeudela-eta, parte hartzera animatu ziren, eta erabakiak lehenengo saria irabaztera eramane zituen. Sasoi hartako 2 milioi pezeta, hain zuzen ere. Finala irabazi zuten egunean, Abadiñon txapligoak

bota zituzten. Athleticek final handi bat irabazten duenean legez. Hirukote abadiñar hau ez zen izan txiste kontalari paperean telebistara joan zen bakarra. Jose Antonio Salterainek, Patxi Gabiak eta Txaro Alberdik ere goi-goian utzi zuten Abadiño txiste kontalarien herri lez. Kike Amonarrizek aurkezten zuen programan hirukote honek final-laurdenetan kale egin zuen. J.G.

## Sei hankako mahaia

Dani  
Maeztu  
Perez  
EH-BILDU



### “DuranGreen”

Bat, begiak itxi; bi, begiak itxita, pentsatu zein izan daitekeen, momentu honetan, Durangoren etorkizunerako proiekturik inportanteena...

Gauza berdina etorri zaigu burura? Tren geltoki eta trenbide zaharreko lurzorua etorri zaizu? Ziurrenik bai...

Eta, horrela bada, zer egingo da Durango erdian dugun zelai-gune handi horretan? Erantzuna gobernu taldeak (EAJ, PSE eta PP) emango digu: 17 bat solairuko 5 etxebizitza dorre, zurretat eta nireztat izango ez diren luxuzko etxebizitzak, eliza bat, errepide bat... Berdegunerik? Berdegunerik ez, apenas. Eta, ez pentsa, ez dute erreparrorik izango proiektua zelofan berdean sartu eta marketing hutsa egiteko. DuranGreen deituko al diote burugabekeriari?

Eta ze kostu dauka gurea omen zen lurzoru horretan ezer egiten hasteak? Bada, ezer egiten hasi aurretik, 4 milioi euro ordaindu dizkiogu Euskotreni, kudeaketa oker bantengatik. 40.000 euro haur eta gazteen aisialdirako programa berrirako, 65.000 euro gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzetarako... eta 4 milioi euro gure herriko lurak “gure” egitegatik!

Alkateak eta bere gobernu kideek horrela erabaki dute. Zuri, niri, gainerako alderdi politikoei, herriko elkarteei, auzoetako elkarteei, herriko eragileei... horiei denei galde-tu al digute ezer? Durangoren etorkizuna baldintzatuko duten proiektuez eztabaida egitea ukatzen digutenez, epaitegi-tara jotzeko aukera bakarrik geratu zaigu. Erabakiak bulego itxi batean hartzea ez da, ez, gure herrigintza eredia.

## Durangaldea asteen

### Greba eta elkarretaratzeak ikastetxe publikoetan, lan baldintza hobek eskatuz

**Durangaldea |** Eguaztenean eta egunean greba egin zuten hezkuntza publikoko hainbat irakasle. Durangoko institutuan, adibidez, elkarretaratzean batu ziren. EILAS eta ELA sindikatuek sektore osoan deitu zuten geldialdira; LABek irakaskuntzan bakarrik. Irakasleek euren lan baldintzak hobetu gura dituzte, ikasleei eskaintzen zaien zerbitzua ere hobetzeko. Adibidez, ratioak baxatzea eta ordezkapenak lehen egunetik betetzea eskatu dute.

### Iaz baino 39 pertsona edo familia gehiagok jaso dituzte gizarte-larrialdi laguntzak

**Durangaldea |** Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak gizarte-larrialdietarako 767 laguntza tramitatu zituen 2017an, aurreko urtean baino 51 gehiago. Era berean, laguntza eskatzen duten pertsona edo familia kopurua %9 hazi zen, 39 gehiago. Familia unitateei dagokienez, kide bakarrek familien eskari kopurua igo egin zen, Amankomunazgotik azaldu dutenez.

### 20. urteurrena prestatzeko, gaztetxean ibilitako belaunaldiak batu gura dituzte

**Abadiño |** Abadiñoako gaztetxearen 20. urteurrena ospatuko dute aurten. Ospakizuna prestatzeko, gaztetxean ibilitako belaunaldiekin lan talde bat sortu gura dute. Lan taldeko lehenengo batzarra martxoaren 23an izango da, 18:30ean, Abadiñoako gaztetxean. Gaur egun gaztetxean dabiltzan lagunek ere parte hartuko dute batzar horretan, eta bere sasoiak ibili zirenei zein herritar denei bertaratzeko gonbita egin diete.



### Maidar Legarreta, Idoia Bediaga, Itzal eta Erzilla ahizpentzat sariak Kantaldi Feministan

**Durangaldea |** Joan zen zapatuan Kantaldi Feministaren kontzertua eta sari banaketa egin zituzten Andra Mariko elizpean. Publikoak herriko Erzilla ahizpei eman zien saria. Jatorrizko abestirik onenaren saria, berriz, Galdakaoko Maidar Legarretak jaso zuen, *Izaren Barnean* abestiagaz. Bertsiorik onenarena Idoia Bediagak eskuratu zuen, *Girls don't wanna have fun* abestiagaz. Bestalde, Itzal Pasaiako laukotearen *Eutsi* abestiak jatorrizko letrarik onenaren saria jaso zuen. Horrez gainera, aipamen bereziak lortu zituzten Usue&Nereak, Lorelei Greenek eta Laopek. Durangoko Udalak antolatu du lehiaketa, aurten lehenengoz, eta sorkuntza eta adierazpen feministak sustatzea izan du helburu nagusi.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOREN irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**  
Chimeneas  
Chimeneas  
Chimeneas  
**ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA**  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

ALDEKOA-OTALORA iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

**BODEGUILLA**  
BOD  
BOD  
**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85





## 'Electra', martxoaren 18an, San Agustinen

**ANTZERKIA** | Companhia do Chapiro Durangon egongo da beste behin ere; oraingo honetan, *Electra* tragedia greziarragaz dator. Familia sarraskiak jorratu, eta barez lehertzeko moduko komedia eskainiko dute.

## Martxoko agenda



<b>16</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> 18:00 Haur eta familientzako poesia jaialdia "Tximeletak / Xabier Olaso" Kultur saila 19:00 Helduentzako antzerkia "Monolokos" Susana Soletto-Javier Merino
<b>17</b>	<b>GIZARTE ONGIZATE - GU BE BAI RUNNERS</b> 12:00 Milia Morea (Askondo) Berdintasunaren alde Kultur saila 'Auzorik auzo' Bakixa auzoan 18:00 Xabi Aburruzaga eta jarraian auzokideekin luntx bat
<b>20</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> Reading club 18:30-20:00 Driving over lemons / Stewart Chris
<b>21</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA - GIZARTE ONGIZATEA</b> 10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba lurretako Herri Biblioteka Azalerako ipuinak 16:45 (0-18 hilabete bitarteko haurtoak) 17:30 (18-36 hilabete bitarteko haurtoak) 18:30-20:00 irakur lagunak Emoixu Odol elkartera 16:30-21:00
<b>23</b>	<b>IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA</b> Club de lecture 18:30-20:00 Gigi/Colette 19:00 Helduentzako ipuin kontalaria (euskaraz).

### Martxoaren 16an

**ELORRIO emanaldia**  
'Figuras Ocultas' filmaren emanaldia, 17:30ean, gaztetxean.

**IURRETA musika**  
Xabi Aburruzagaren kontzertua 'Auzorik auzo' ekimenaren baitan, 18:00etan, Bakixan.

**BERRIZ antzerkia**  
'Mendian Ibiltari' Kontukantari 2-aren baitan, 18:15ean, Kultur Etxean.

**DURANGO margolaritza**  
Josu Rekaldek 'Erresilientziak' erakusketa inauguratuko du, 18:30ean, Arte eta Historia museoan.

**DURANGO musika**  
Nerea Arriola eta Esther Barandiaranen biolin-piano kontzertua, 19:00etan, Bartolome Ertzilla Aretoan.

**IURRETA antzerkia**  
Susana Soletto eta Javier Merinoren bakarrikzeta saioa, 'Monolokos', 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

**ELORRIO musika**  
Nebrashka eta Vulk taldeen kontzertua, 22:30ean, Ateneon.

**DURANGO musika**  
Sei Urte eta Luis Brea taldeen kontzertua, 22:30ean, Plateruenean.

### Martxoaren 17an

**BERRIZ ikastaroa**  
Ilargiak J - Lunatikas tailerraren saio berri bat, 10:00etan (sei orduko saioa izango da).

**DURANGO ospakizuna**  
Gorpuzkingz taldearen kontzertua, 23:00etan, Intxaurre kultur elkartean.

**DURANGO ikastaroa**  
Skate eta graffiti tailerra (12-16 urte bitarteko gazteentzat), 18:30ean, Plateruenean.

**BERRIZ musika**  
'45 cerebros y un corazón' Maria Arnal i Marcle Bagésen kontzertua, 20:00etan, Kultur Etxean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
Marie De jonghen 'Izar' antzezlan, 20:15ean, Zornotza aretoan.

### Martxoaren 18an

Bihar, martxoak 17, kontzentrazioa egingo dute Altsasuko auziperatuen alde. 13:30ean, Andra Marian.

**DURANGO topaketa**  
'Sukaldari' txef gazteen topaketa (10-14 urte bitarteko gazteentzat), Itzarturen eskutik, 10:00-16:00 bitartean, Pinondon.

**DURANGO antzerkia**  
Baserrian Amets antzerkia (3-6 urte bitarteko umeentzat), 12:00etan, Plateruenean.

**DURANGO ekimena**  
Geu Be elkartearen aldeko zumba maratokia; Maria Elgezua eta Olga Otero zumba irakasleen eskutik, 10:30-13:00 bitartean, Landako kiroledegian.

**ELORRIO antzerkia**  
'Jon Braun' antzezlan, Anita Maravillasen eskutik, 17:00etan, Arriolan.

**DURANGO aisialdia**  
Joko kooperatiboak, Das Pasta (eskulanak), mandalak (6-10 urte bitarteko umeentzat), 16:00-19:00 bitartean, Elkartegian.

**DURANGO aisialdia**  
Joko kooperatiboak, pegatinak (eskulana), mandalak (11-14 urte bitarteko gazteentzat), 16:00-19:00 bitartean, Plateruenean.

**DURANGO antzerkia**  
'Electra' antzezlan, Companhia do Chapiroren eskutik, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

### Martxoaren 21ean



Arantxa Urretabizkaia *Bidean ikasia* liburuari buruz arituko da, gaur, 18:00etan, Andragunean.

**DURANGO hitzaldia**  
'Lurra, hitzez eta ahotsez' egitasmoaren 2.solasaldia, 19:00etan, Bizenta Mogel Bibliotekan.

### Martxoaren 22an

**DURANGO hitzaldia**  
'El cuento de la criada y Alias Grace: ¿Ha llegado el discurso feminista a las series de TV?' hitzaldia, Josune Muñoz San Josek zuzentzen duen 'Creadoras de cultura: más allá de la literatura' hitzaldi zikloaren baitan, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

**DURANGO musika**  
'Kantu Lagun' Etxegaz, 20:00etan, Plateruenean.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

*La forma del agua*  
barikua, 16: 22:00  
domeka, 18: 19:00

### :: Durango ZUGAZA

• *La Tribu*  
barikua, 16: 19:30/22:00  
zapateria, 17: 17:00/19:30/22:30  
domeka, 18: 18:30/21:00  
astelehena, 19: 18:30/21:00  
martitzena, 20: 20:00  
eguztana, 21: 20:00

• *Tomb Raider*  
barikua, 16: 19:00/22:00  
zapateria, 17: 17:00/19:30/22:30  
domeka, 18: 18:30/20:30  
astelehena, 19: 18:30/21:00  
martitzena, 20: 20:00  
eguztana, 21: 20:00

• *Perdido*  
barikua, 16: 19:30/22:00  
zapateria, 17: 17:00/19:30/22:30  
domeka, 18: 18:30/20:30  
astelehena, 19: 18:30/21:00  
martitzena, 20: 20:00  
eguztana, 21: 20:00

### :: Elorrio ARRIOLA

• *Errementari*  
domeka, 18: 22:00  
astelehena, 19: 20:00

### :: Zornotza ARETOA

• *Together / Elkarrekin*  
barikua, 16: 20:15

• *El Coaderno de Sara*  
domeka, 18: 20:00  
astelehena, 19: 20:15







# *Ezkontzak* *2018*



# H

**HAMPTON**

Montevideo, 3 - Durango  
Tel. 946 056 295

Ortiz de Zárate, 17 bajo - Vitona  
Tel. 945 033 209





# Egun berezi horretarako tendentzien gida

Sri Lanka  
www.bagoaz.com  
bagoaz  
Txinurrisol 8, behea  
Matiena - ABADIÑO  
Tel: 94 465 75 77  
Mug: 688 61 17 87  
Maldivas  
**NEURRIRA EGINDAKO BIDAIK**

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio  
**DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIRUA**  
688 861 975  
info@zuretxokoa.com  
**ZURE txokoa**  
www.zuretxokoa.com  
Kortezubiaren 21. beheko, 5. solairua - 48200 Durango - Bizkaia

**Goco Tour** **AUTOCARES**  
Viajes Nacionales / Internacionales.  
Transporte escolar, bodas, celebraciones.  
Vehiculos adaptados para personas con movilidad reducida.  
Vehiculos de 7, 18, 22, 29, 37, 40, 49, 55, 59, 71 plazas.  
Servicio Taxi: Lujo y 24 horas (665 295 623).  
Bº Arregi Poligono CONDOR - EDIFICIO C - 48340 AMOREBIETA  
946 308 250 - 946 308 510 - 24 horas - 609 443 933  
www.gocotour.com / gocotour@gocotour.com

Autocares **Mallabia**  
**MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAT EGOKITUTAKO IBILGAILUA**  
**AUTOBUSAK:**  
18/22/36/56/60 plaza  
Murueta Torre kalea,  
2G blokea, etxabea  
48200 DURANGO - Bizkaia  
Tel.: 946 201 976  
Faxa: 946 202 348  
www.autocaresmallabia.com  
info@autocaresmallabia.com


**Katal Tours** Business & Travel  
**PASIOA ETA PROFESIONALITASUNA ZURE BIDAIETAN**  
**Airmet**  
Murueta Torre, 8B, etxabea - Landako etorbidea - DURANGO  
Tel.: 94 646 28 19 - 647 84 96 02  
javier@kataltours.com - www.kataltours.com



Ezkontzak geroz eta anitzagoak dira. Klasikotasunetik irtenda bakoitzak bere neurria egindako eguna antolatzen du. Bide horretan dauden aukera eta tendentzien berri izango duzu hurrengo orrialdeotan. Ezkongaien asmoa ospakizun originala egitea izaten da, eta, horretarako, zer hoberik bakoitza gustura sentiaraziko duen zerbait antolatzea baino.







GRAN HOTEL  
DURANGO

Z U R E

E Z K O N T Z A

B E R E Z I A

D A



Zuei eta zuen gonbidatuei zerbitzu guztiak eskainiko dizkizuegu, zuen ezkontza eguna ahaztezina izan dadin: aretoak, kanpoko terraza, kanpoko igerilekua, logelak, suiteak, spa, ile-apaindegia, aparkalekua, edertasun tratamenduak eta dituzuen desira guztiak.



# Orrazkera sinpleak lore naturalekin hornituta

Ezkontzetako orrazkeretan sinpletasuna geroago eta gehiago nabarmentzen ari da. Solte gelditzen diren trentzak, erdi batutako melenak... Horri guztiari lore naturalak gehitu behar zaizkio




## Loreak apaingarri

Lore naturalekin apaindutako orrazkerak moda-modan daude


## Ilea erdi batuta

Ilea solte ala batuta? Erdibideko orrazkera bat aukeratu dezakezu, ukitu informal bat emanez



## Ile-trentzen sasoia

Ile oso luzea dutenek trentza solteak egiteko aukera zabala dute



## Ilea batuta

Ilea batzerakoan trentza zabalak zein mototsak egin daitezke



## Melena soltea

Orrazkera naturalena ilea solte uztea da. Hala ere, orrazterakoan kizkur batzuk egin daitezke, sofistikazio puntu bat emateko



*Esklusibotasuna eta dotorezia,  
Oiz mendiaren magalean.  
Bizitza osoan oroituko duzu.  
Ingurune natural zainduak  
sentsazioz beteko zaitu.*

Arroitabeiti baserría, San Migel, 2 GARAI  
Tel.: 946 228 240 - info@aboiz.es





## Opariak eta gozokiak: gonbidatu denen gozamenerako

Geroago eta ezkontza gehiagotan gonbidatuentzako opari eta gozoki originalak ikus daitezke. Abarketak, xaboiak zein abanikoak egunean bertan baliatu daitezkeen objektuak dira.

Bestalde, dantzaldiaren erdian gozoki sortak jar daitezke gonbidatuen gozamenerako, indarra hartzeko. Litxarreriak izan daitezke, edo pastel sofistikatuagoak.



**akebaso**

[www.akebasorestaurante.com](http://www.akebasorestaurante.com)

94 658 20 60

[akebaso@akebasorestaurante.com](mailto:akebaso@akebasorestaurante.com)

SAN JUAN AUZOA 16

ATXONDO, BIZKAIA





# “Ezkontzetan naturaltasuna dago modan”

Ezkontza egunak baditu bere prestaketak. Prozesu horretan laguntasuna gura duenak talde profesionala eta gertukoa aurkituko du Jaione Amantegi Estudioan. Estefania Uriarte (Durango, 1981) estilista eta visagistak esperientzia handia du arlo honetan.

## Zenbat pertsonak osatzen duzue lantaldea?

Hainbat arlotan dihardugun bost profesionalek osatzen dugu lantaldea. Aholkularitza, makillajea, ile-apainketa, argazkilaritza eta estetika. Zerbitzu globala zein bezeroaren neurrikoa eskaintzen ditugu.

## Ezkontzeko arroparen aukeraketan ere aholkularitza eskaintzen duzue.

Ezkontzarako arroparen aukeraketan ere aholkularitza eskaintzen duzue. Ezkongai zein gonbidatuentzat gorputzaren azterketa egiten dugu, morfologiaren arabera ondo gelditu ahal zaien arroparen inguruan aholkatzeko. Azpimarratu gura nuke guk ez dugula saltzen dugun arropen inguruan komisorik kobratzen. Gure helburua bezeroak gustuko duen arropa aurkitzea da, eta ez horren inguruko negozioa egitea.

## Arropari dagokionez, gaur egun zer dago modan ezkongaien artean?

Ezkontzetan naturaltasuna dago modan, bai arropetan baita orrazkera eta makillajearen ere. Dena dela, hau guztia ziklikoa eta aldakorra izaten da.

## Ezkontzarako arropa beharrez, geroago eta jende gehiagok beste estilo bateko jantziak aukeratzen ditu. Mundu zabala izango da hori.

Bai, ohiko ezkontzako arropetatik kanpo ezkondu gura dutenek zer edo zer berezia gura izaten dute, eta ez da erraza. Baina polita da prozesu horretan parte hartzea.

## Arropatik harago, makillajea eta orrazkera ere lantzen dituzue.

Lanketa horretan, guretzat oso garrantzitsua da probak egitea. Horregatik, denboragaz batzen gara, ideiak baloratzeko eta bezeroaren ezaugarrietara egokitzen diren orrazkerak ikusteko. Guk aholkatutako orrazkera egiteak ez du balio bezeroa eroso sentitzen ez bada. Beraz, emaitza on bat izateko, probei denbora eskaini behar zaie.

## Anekdotak asko bizi izan dituzue?

Hala gura duten kasuetan, ezkonkideei eta ingurukoiei ezkontza egunean prestatzen laguntzen diegu. Urduritasun momentuak izaten dira. Gogoratzen dut, behin, Asturiasko mendi punta batean hotela hartuta zuen familia bati laguntzera joan ginela. Zazpi gonbidatari makillatzen, orrazten eta jantzen lagundu behar genien. Aurreko gauean joan ginen, eta goizean goiz gelditu ginen lehenengoagaz, 06:00etan. Denak lokartu ziren, eta 07:30era arte ez zen inor agertu. Aurreko gauean parrandan ibili ziren, eta jendea ezin esnaturik ibili ginen. Azkenean, baina, ondo irten zen dena. Arropak jantzerakoan ere, jantziekin askotan gertatzen dira ezustekoak, baina trebeak gara horiek konpontzen.

## Lan zaila duzue. Ez da erraza izango bezeroaren gustuetan asmatzea.

Esperientzia handia dugu lanbide honetan, eta horrek asko laguntzen du. Ez dut esango gustuetan asmatzea erraza denik, baina, gehienetan, ondo irteten da dena. Guretzat oso pozgarria da bezeroak ezkonbidaiaren ondoren eskerrak ematera datozenean. E-mail hunkigarri ugari ditut gordeta. Ezkondu diren horietako askok ondoren ere estudioa etortzen jarraitzen dute eta hartu-eman estua izaten jarraitzen dugu.







## “Aholkularitza eskaintzerakoan pertsona bakoitzak duen bizimodua ezagutzea ezinbestekoa da”

Visagismoan aditua da Estefania Uriarte durangarra. Aurpegiaren ikerketa eginda, norberari hobeto doazkion ile ebaketa eta koloreak zehazten ditu. Ezkontzarako zein eguneroko bizimodurako baliogarriak diren aholkuak ematen ditu Bilbon duen estudioan.

**Ezkontzetatik kanpo ere, visagismo azterketak egiten dituzue. Zer da azterketa horretan lantzen duzuen?**

Visagismo zerbitzuak aurpegiaren ikerketa egiten du, bakoitzari dagokion ile eta kolore ebaketa zehazteko. Aldi berean, aurpegiaren morfologia eta proportzioak zehazten ditu, egokienak

diren betaurreko motak, makillaje koloreak, osagarriak, eta abar zehaztuz.

**Irudi aldaketen programak boladan daude telebistan. Ilea arrosa jarri edo motz ebakitzea lako proposamenak egiten dituzue?**

Visagismoak ez die modei eta tenden-

tziei jarraitzen. Norberaren proportzioen arabera proposamenak egiten dira. Baina, garrantzitsua da bezeroak ere aldaketa hori egin gura izatea. Aldaketarako aukera bat baino gehiago egoten da, eta bezeroak ere gustura sentitu behar du bere burua aldaketa hori egiten. Hori da garrantzitsua gure-

tzat. Telebistan ikusten dena espektakulua da, eta ondo dago, baina guk beste modu batera egiten dugu lan.

**Bezeroagaz asko berba egiten duzuela esan didate.**

Aholkularitza eskaintzerakoan, pertsona bakoitzak duen bizimodua ezagutzea ezinbestekoa da. Goizetan orrazkera atontzeko astirik barik ibiltzen zaren, esate baterako, datu garrantzitsua da. Izan ere, kolore edo mozketak batzuen mantenuak denbora eta lana suposatuz dezake. Jakin behar dugu ile-apaindegira zenbatero joateko prest zauden, kolore batzuek sarriago behar dute eta berritzea. Arroparen aholkularitzari dagokionez, garrantzitsua da, adibidez, non egiten duzun lan jakitea. Horrela, normalean, aldaketagaz asmatu egiten dugu.





BEGOÑA ASUA

**ZORNOTZA • J.D.**

**Emaztegiarentzako jantzi ausartetatik korte klasikoagoetara, denen gustuak asetzeko adina jantzi aurkitu daitezke Zornotzako Farah dendan.**

**Zein estiloko ezkontza jantziak saltzen dira gehien?**

Klasikoa barik, jantzi sinpleagoak gura dituzten asko etortzen da gaur egun: jende gutxi-gaz edo familian egingo duten ezkontza delako, hondartza batean izango delako... Gaur egun modan dago, esaterako, dena jatetxe batean eta bere inguruetan egitea. Ezkontza mota horietako emaztegiak gurago dute ohikoa baino jantzi erosoagoa eta sinpleagoa.

**Kolorean zuria nagusitzen da?**

Kolorea gero eta gehiago sartzen dabil, batez ere, zapatetan. Soinekoetan ere kolore ukitu bat izatea gustatzen zaie, beltza esaterako. Nik ditudan jantzirik ausartenak Jordi Dalmau diseinatzaile katalanarenak dira. Emaztegiak ausarta izan behar du eta desberdina den zerbaiten bila etorri behar da. Jantzi klasikoak ere baditugu. Tul ehunagaz egindako jantziak asko eramaten dira aspaldian.

**Euskaldunak gero eta ausartagoak gara jantziaren?**

Denetarik dago. Baina, nire ustez, joera klasiko hori apurka-apurka aldatzen eta garatzen ari da.

**Amabitxientzako jantziak ere badituzue, ezta?**

Bai, adinaren eta izaeraren arabera jantzi mota bat edo bestea bilatzen dute: jantziaren gainetik lebita daramaten klasikoagoetatik jantziaren atzealdean eskotea eramaten duten ausartagoetaraino.



Ezkontza eguneko ohiturak aldatzen ari dira. Ezkontza jendetsuak barik, askok gurago dituzte gertuko familiagaz eginda. Tokiari dagokionez, hainbat jatetxe dena bertan egiteko aukera eskaintzen dute: elizkizuna, bazkaria eta osteko ospakizuna. Farah dendak, edozein ezkontza mota izanda ere, ezkongaien gustuetara egokitutako eskaintza zabala du Zornotzan, jantzi klasikoetatik hasi eta modernoagoetaraino.



**NUKLEO**  
ileapaindegia

**94 658 29 96**  
Nizeto urkizu 14 behea  
48230 Elorrio Bizkaia

**Farah**

EZKONGAI - AMABITXIAK - OSPAKIZUNAK - JAUNARTZEAK

C/ Gudari, 9 - Zornotza (Bizkaia) - Tel.: 94 630 91 49  
email: farah@noviasfarah.com - www.noviasfarah.com - noviasfarah.





## Gipurra nagusi

Gipur eta enkajedun soinekoek ukitu sofistikatua emango diete ezkontzetako gonbidatuen arropen denboraldi honetan. Arropen osagarri legez, *clutch* deituriko poltsak erabiltzea ere boladan dago. Sinpletasuna gogoko dutenentzat, berriz, kolore bakarreko buzo eta soinekoak aukera bikaina dira



# ADOLFO DOMINGUEZ

Artekale 22, Durango  
48200 Bizkaia  
Tel.: 98 839 87 43





**Soineko erromantikoak**  
Ohiko ezkontzetako jantzietatik irtenda, soineko luze erromantikoak modan daude



**Gorbata ala pajarita?**  
Pajarita tendentzietan nabarmentzen ari da azken boladan, bai ezkongaien bai gonbidatuen artean



**Bardezi**  
DURANGO



**Bardezi GIZONAK**  
Arkotxa, 2 DURANGO  
Tel.: 946 81 61 83

**Bardezi EMAKUMEAK**  
Artekale, 3 DURANGO  
Tel.: 946 21 80 66

**Fercy GIZONAK**  
Artekale, 31 DURANGO  
Tel.: 946 81 01 85



# “Bezeroen ilusioa betetzeko bidaiak horretatik zer espero duten jakin gura izaten dugu”

Ezkonbidaien inguruko aukera zabala aurkituko duzu Eroski Bidaiak-en

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

**Paradisua diruditen hondartzen edertasuna, New York-eko zalaparta zein itsas bidaietako lasaitasuna. Bikote batek ezkonbidaiarako desio duen guztia aurkituko du Eroski Bidaiak-en. Esther Izquierdo Lejardi (Durango, 1974) agentzia honetako arduradunak mimo handiz prestatu beharreko bidaiak direla nabarmendu du.**

**Bikoteak ezkonbidaiari buruz galdetzeraz datozenean, zeren bila datoz?**

Lehenik eta behin, informazioa jaso gura izaten dute. Kasu ugari topa ditzakegu. Batzuek oso argi dute zer gura duten. Beste batzuek, ostera, ez dute oso argi eta aukerak aztertu gura dituzte.

**Zein aholku ematen dizkiezue?**

Bezeroaren ilusioa betetzeko bidaiak horretatik zer espero duten jakin gura izaten dugu, neurriari egin dako bidaiak antolatu ahal izateko. Batzuek esperientzia berezi bat gura dute, baina ez dute hegazkinean ordu asko bakoitzari pasatu gura, eta kasu bere denbora eskaini behar zaio. *Utzi hegan egiten zure irudimena-ri, eta zure ametsek j o a n*



*nahi duzun lekura eraman zaitzatetela. Horixe da gure filosofia.*

**Zein izaten da bikoteek ezkonbidaiaren gehien bidaiatzen duten sasoiak?**

Normalean, urrian edo azaroan etortzen dira galdetzeraz, eta denboragaz antolatutako bidaiak izaten dira. Apiriletik irailera bitartean bidaiatzen dute bikoterik gehienek.

**Bidaiak hauek beste edozeinekin alderatuz, zein berezitasun izaten dute? Ezkonbidaiak izatearren, badute detaile berezirik?**

Bidaiak guztiak dira bereziak, baina hau beste mimo batez prestatu beharrekoa da. Hotelei jakinarazi egiten diegu gela hobe bat edo fruta otzara bat jartzeko. Ziurtatzea zaila da, baina horrelako detaileak egiten dira, ukitu berezi bat emateko. Gainera, Eroski Bidaiak-ek merkatuko deskonturik onenak ditu.

**Bikoteen artean, zer dago modan? Nora joaten dira ezkondu eta gero?**

Itsas bidaiak asko zabaltzen dira. Era berean, bikote askok Estatu Batuak aukeratzen jarraitzen dute. Asia aldea ere aukeratzen dute; Thailandia, Vietnam eta Japonia ere modan daude.

**Leku finko batera barik, hainbat txoko ezagutzeko bidaiak nabarmentzen dira?**

Batzuek hondartza aldean egon gura izaten dute, eta handik txangoren bat egin. Beste batzuek, aldiz, gehiago mugitu gura izaten dute, eta amaieran hondartza amaitu. Hori bai, normalean bidaiak luzeak izaten dira.

**Hainbeste urtean bidaiak agentzian lanean, anekdotaren bat izango duzu ezkonbidaiaren inguruan.**

Bidaiak ezeztatzea behin baino gehiagotan gertatu zaigu, ezkontza bertan behera gelditu delako. Urte batean, lankide batek hiru bikoterentzat ezkonbidaiak prestatu, eta hiru neskek haurdun itzuli ziren.

**Orain Aste Santuko bidaiekin ibiliko zarete. Kasu honetan, aurrerapen gutxiagorik etorriko dira bidaiak hartzeraz.**

Bai, topera gabiltza Aste Santuko kanpainagaz. Gutxi gelditzen da oportetarako. Denbora gutxiagorik etortzen da jendea, eta bidaiak gertuago izaten dira, bai.



Boroa Auzoa  
Garai Baserria, 11  
ZORNOTZA  
boroa@boroa.com  
Tel.: 946 734 747

**BoROA**  
JAETXEA

*Ametsetako tokia naturaren bihotzean.*

*Zuekin batera konpromisoa hartzen dugu zuen ezkontza eguna ospakizun ahaztezina izan dadin. Horretarako, nahi dituzuen zerbitzu guztiak jartzen ditugu zuen eskura, detaile guztiak ezin hobeto zainduz.*

*Terrazan zeremonia zibilak egiteko aukera ere eskaintzen dugu.*

**ASTE SANTUA**  
*Amets bat duzu zain*

**EROSKI** bidaiak





**JAVIER CANTERO**

**ZORNOTZA • J.D.**

**Argazkien bidez istorio bat kontatzen du, filmetako zuzendarien antzera: ezkongaien eta ezkonduen istorioa. Momentu, keinu eta sentimenduak jaso eta argazkirik argazki josten ditu, fotogramak bailiran, bikotearen pelikularik gogoratuena izango den albuma osatzeko.**

**Zelan lortzen da album bakoitza berezia eta bakarra izatea?**

Argazkien bidez istorio bat kontatzen saiatzen naiz: ezkonduen istorioa. Album bakoitza bakarra izatea ezkontzak berak eragiten du. Bikote eta familia bakoitza desberdina da. Ezkontzak berak esaten dizu jarraitu beharreko bidea zein den.

**Argazkiak egunean bertan bakarrik ateratzen dira?**

Ezkontza izan baino hilabete eta erdi lehenago hasten naiz. Horrela, elkar ezagutzen dugu eta konfiantza bat sortzen da. "Hor dator argazkilaria" beharrean, "hara, hor dator Javi" esan dezatela bilatzen dut.

**Zure argazki batzuk zuri-beltzekoak dira. Zer dute zuri-beltzekoek kolorekoei falta zaiena?**

Kontraste bereziak eragiten ditu. Emozioa adierazten duten argazki denak zuri-beltzean ateratzen ditut. Ikaragarri gus-tatzen zaizkit. Bikote batek esango balit erreportaje osoa zuri-beltzean egitea gura duela, zoriontsu egingo ninduke.

**Zein tokitan egin duzu argazki saiorik bereziena?**

Orain urte bi, Madrilgo Gran Viako bidearen erdi-erdian atera nizekion argazkiak bikote bati, manifestazio batengatik itxita zegoelako. Egoera ikusi eta "biok erdira" esan nien. Egoera aprobetxatu beharra zegoen.



"Argazkien bidez istorio bat kontatzen saiatzen naiz: ezkonduen istorioa. Album bakoitza bakarra izatea ezkontzak berak eragiten du". Bizitza osoan gogoratu-ko duten egunaren esentzia argazki bilduman batzea da Javier Cantero argazkilaria-  
ren lana.



**JAVIER CANTERO**  
FOTOGRAFÍA



**%20ko  
DESKONTUA**

[www.javiercantero.net](http://www.javiercantero.net)  
[info@javiercantero.net](mailto:info@javiercantero.net)  
658 906 475



# “Trapak ez du salbatuko euskal musika; euskal musikaren salbatzailea Gorpuzkingz da”

Martxoaren 17an, Intxaurre kultur elkartearen kontzertua eskainiko dute Gorpuzkingz euskarazko traparen aitzindariak



Donald Trapek, Big Txikik, Zakil Onilek eta enparauek osatzen dute Gorpuzkingz.

**MUSIKA** • ARITZ MALDONADO

Hondarribitik, “Napar kostaldetik” beraiek dioten bezala, Durango dator, asteburuan, momentuko talde polemikoetarikoa den Gorpuzkingz. Euskal musikaren “salbatzaile” legez aurkezten dute beraien burua, eta diskorik kaleratu gabe, Durangoko Azokako solasaldi batean parte hartuz gona bidatu zuten taldea, eragin duten zalaparta dela-eta. Drogak, armak, ghetto hizkera... orain artean arrotzak ziren ikurrak ekarri dituzte euskal musikara.

Zelako ikuskizuna ekarriko duzue Intxaurrera zapatuan? Bizkaia al-

“**Triste da onartzea, baina [bizkaitarrak] gu [gipuzkoarrak] baino askoz ere modernoagoak zarete**”

“**Hemen modan dagoena Huntza, Skakeitan eta horrelako kakak dira. Guk paso egiten dugu horrelakoetaz**”

**dera ez zarete askotan etorri. Zergatik?**

Gure ustez, ez dugu beste munduko ikuskizunik egiten, baina, zerbait harrigarria denez, Euskal Herrian nahiko arraroa da. Bestalde, nabari da zure aurrelana ez duzula ongi egin. Bizkai aldean askotan jo izan dugu. Triste da onartzea, baina gu baino modernoagoak zarete.

**Durangoko Azokan egon zineten. Zein oroitzapen duzue?**

Egia esateko, ez dugu gehiegi gogoratzen, mozkorregi geundelako. Hori bai, zuen herria biziki itsusia da.

**Diskorik eduki gabe, milaka bisita dituzue Youtuben. Etorkizunean dis-**

**korik ateratzeko asmorik?**

Gaur egun, jendeak begietatik entzuten du musika. Gu irudi hutsa gara, eta hori da islatzen duguna.

Jende askok galdetu digu diskoarena, baina ez dugu egingo. Guk gura duguna eta gura dugunean egiten dugu.

**Modan dago trapa Euskal Herrian?**

Zoritxarrez, ez. Euskal Herrian modan dagoena Huntza, Skakeitan, Horzdun eta horrelako kakak dira. Guk, oster, paso egiten dugu horrelakoetaz.

**Trapak salbatuko du euskal musika?**

Ez. Euskal trapak ez du euskal musika salbatuko. Gorpuzkingzek salbatuko du euskal musika.

**Durango pailazoen topagune bilakatuko da, beste urte batez, Topaklownegaz**

**ANTZERKIA** • ARITZ MALDONADO

Bederatzi ikastarok eta bederatzik ikuskizunek osatuko dute seigarren edizio honetako egitaraua. 120 lagunetik gora bilduko dira ikastaroetan; horietako batzuk egunean bi ikastarotan parte hartuko dute. Urtero bezala, Durangoko hainbat gunetan izango dira emanaldiak.

Gorka Gansok aurkezpenean esandakoaren arabera, topaketak erreferentziatzeko bilakatu

**Ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik, azken orduko bajak egon dira-eta**

**Besteak beste, Peter Shub artista estatubatuarra egongo da aurtengo Topaklownen**

dira estatuan. Horrez gainera, ekimenak goia jo duela adierazi du. “Publiko aldetik zein baliabide aldetik, ezin dugu gehiago eskaini. Jauzi bat gora eginez gero, egun duten giro ez masifikatu hori galduko lukete”, adierazi du. Egungo ereduagaz pozik, horrela jarraituko du aurrerantzean ere. Ohi den bezala, etxeko zein nazioarteko taldeen antzezlanak egongo dira ikusgai, martxoaren 28tik apirilaren 1era bitartean. Besteak beste, *Babo Royalen* aurrestrenaldia eta Peter Shub ibilbide luzeko aktorearen *Stand Up and Fall Down* ikuskizunak nabarmendu dituzte. Sarrerak San Agustinen bertan edo internet bidez erosi ahal dira. Antzezlan bakoitzerako sarrerak zortzi euroan erosi daitezke. Ikuskizun guztiak ikusi ahal izateko bonoa, oster, hogeita hamar euroan erosi daitezke.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

**HELDUENTZAT**  
ARMAGABETZEA  
Inaki Egaña  
2018

**UME ETA GAZTEENTZAT**  
LURREKO BANDAN  
Pedro Ruiz García  
2018

**MUSIKA**  
COSMIC LEXICON  
Atom Rhumba  
2018

**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13



# berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

## BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

### Abantailak:

- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak

## BERRIALagun harpideduna\*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, **hilean 36€**

Asteartetik ostiralera, **hilean 23€**

Ostiraletik igandera, **hilean 21,3€**

Asteburukoa, **hilean 15€**

### Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eskusiboak



**Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.**

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria laguna**  
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



**berria**  
#BERRIAK15

\* Ordainketak: urtekoa, bi zatitan, edo lau zatitan



# Hamasei obra, Durangaldeko hamasei emakumeren mundua erakusteko

Atzo inauguratu zen 'Hausnarketak' erakusketa; apirilaren 15era arte egongo da ikusgai



Durangaldeko hamasei emakume artistaren obrak egongo dira ikusgai museoan.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

“Non daude emakumezko artisten obrak? Zergatik da hain zaila emakumezko artistek beraien lanak erakustea?”. Garazi Arrizabalaga Durangoko Arte eta Historiaren museoko zuzendariak galdera horiek zituen buruan, eta gogoeta horietatik dator orain *Hausnarketak* erakusketa. Durangaldeko hamasei

**“Zergatik da hain zaila emakumezko artistentzat beraien lanak erakustea?”**

emakume artistaren obra bana dago ikusgai atzotik; apirilaren 15era arte egongo da ikusgai erakusketa. “Arte Ederretako ikaslearen artean gehienak emakumeak izanik, aukera gehiago eskaini behar zaizkie erakusteko; esposizio hau lehenbiziko pau-

soa izan daiteke”, dio Arrizabalagak. Aurrerago horrelako erakusketa gehiago egiteko aukerak aztertzen ari dira museoan. Besteak beste, Irati Eguren, Iraia Okina, Nagore Txintxurreta eta Goiuri Alekoa-Otaloraren lanak

**Besteak beste, Irati Eguren, Iraia Okina eta Nagore Txintxurretaren lanak egongo dira ikusgai**

egongo dira ikusgai *Hausnarketak* erakusketan. Obrak denetarikoa dira; oleoak, grabatuak eta eskulturak daude, besteak beste; koloretan daude lan batzuk; beste batzuk, ostera, zuri-beltzean. “Hamasei obra horien atzean hamasei emakume daude, hamasei ikuspegi”, azaldu du museoaren zuzendariak.

**Hausnarketa inaugurazioan**

Atzoko irekieran, hainbat emakume artista bildu ziren museoan. “Emakume izateak duen eraginaz berba egitea zen asmoa; izan ere, badaude faktore batzuk gizonezko artistei eragiten ez dietenak; haurdunaldiak, esate baterako”, azaldu du Arrizabalagak.

**Geure Durangaldea**

Antton Uriarte Salterain  
Musikaria



**Anestesian**

Anestesia: anestesiko baten eraginez, gorputzaren sentikortasun orokorra, minarekikoa bereziki, osorik edo partzialki desagertzea. Anestesia orokorra: sentsazioen desagertzea gorputz osoan, eta, beraz, estimuluei erantzuteko gaitasuna ezabatzea.

Sentsazioa daukat aspalditik anestesia bera, sendagaia baino, ez ote den tipifikatu beharreko epidemia edo gaitz bihurtu. Informazio, datu eta irudi gaindosiak eraginda, Teleberri albistegiak diosku gerretan hildakoekin, etxegabetzeekin zein gose direnekin zenbat segundoz izan behar dugun sentibera. Lozorro honetan, egunkariaren esku uzten dugu edozein gairen gainean iritzi bat sortzeko lana, gero guk geure gustukoena automatikoki bagina lez erreproduzitu dezagun. Anestesiak eraman gaitu bide erraz eta erosoetatik aldentzen dena erreparoz ikustera, edozein errebeldia zein alternatiba bideri atontan eta *de facto* hegialak moztera. Axolagabekeria eroso gaude dena delako arazoa gertu(egi) ematen ez den bitartean.

Hain da orokorra loaldi sozial hau, ezen gauza ederrekiko sentikortasuna ere desagerrarazi baitigun. Anestesiatu gara bizi garen herrian bizitzaren zori onaz, gure paraje eta inguruak eskaintzen digunaz, jendartearen gaitasun eta indarrak, eta oraindik egiteko daukagun bidez. Eskerrak eta miresmen handiena, bide batez, emakume eta pentsidunei, beste behin akuilu izan eta morfina gozotasunetik aldentzearen.

Anestesiatuok: berandu gabiltzan arren, gaur ez da egun txarra lo-zakutik ateratzeko.

## Kantu herrikoien irakurketa propioa dakarren bikotea

Bihar, martxoak 17, kontzertua eskainiko dute Maria Arnalek eta Marcel Bagés Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan.

MUSIKA • A.M.

Diskoan kredituetan “egile ezaguna” jarri ohi dieten kantuak galbahe propiotik pasatuta berreskuratu dituzte Maria Arnal eta Marcel Bagés artistek 45 *Cerebros y un Corazón* ikuskizunean. Besteak beste, sehaskako abestiek, ospakizunetako kantekin eta kanta herrikoiekin egiten du lan bikoteak. Maria Arnalek bere ahots natural eta

sakonagaz ikuslea bereganatzen du, eta Bagés, bitartean, gitarra elektrikoagaz laguntzen dio. Biak ala biak inprobisatzeko prest egon ohi dira, gainera. Emozioa, talentua eta jarreraren arteko nahasketa liluragarria lortzen dute Arnalek eta Bagés euren emanaldietan.

Aurretik, Elorrioko Musikaire jaialdian egona da bikotea. Kontzertua 20:00etan hasiko da.



Maria Arnal eta Marcel Bagés Berrizko Kultur Etxean egongo dira asteburuan.

**Electra**  
Companhia do Chapitô

Martxoak 18,  
19:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO USALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jaletxea@plateruena.net

Martxoak 16 · 22:30ean  
**LUIS BREA Y EL MIEDO + SEIURTE**  
Kontzertua

Martxoak 22 · 20:00etan  
**KANTULAGUN**  
Kontzertua

Apirilak 8 · 13:00etan  
**OLATZ SALVADOR**  
Kontzertua



# “Gastronomia eta kirola uztartu ahal izatea ikaragarria da niretzat”

Otsailean ‘Chiloe’ saioa grabatzen hasi zen Iturrieta, eta dagoeneko bi podium lortu ditu Eubako korrikalariak

**KORRIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

**Azken bi urteotan, bere bi afizio nagusiak uztartzen dabil Zigor Iturrieta, EITBko ‘Chiloe’ programari esker. Otsailean denboraldi berria grabatzen hasi, eta lehen bi lasterketan bi podium eskuratu ditu eubarrak.**

**‘Chiloe’ren denboraldi berri bat grabatzen hasi zarete, eta lehen bi lasterketan bi podium lortu dituzu. Gustura denboraldi hasieragaz?**

Egia esan, denboraldi hasiera lar ona izaten ari da, eta oso pozik nago. Programak zortzi saio izango zituela jakin nuenean, entrena-tzaileagaz hitz egin nuen eta gure asmoa lasaiago hastea zen. Polonia-ko lehen lasterketan, pultsazioei jarraituta, atzetik aurrerako las-

terketa egin nuen, eta hirugarren sartzea lortu nuen. Chihuahua-ko (Mexiko) lasterketa, berriz, oso bizkorra izan zen eta, han ere, atzetik aurrera egindako lasterketa bati esker, bigarren postua lortu nuen. **Nolako izan da Mexikoko proba?** Lasterketa hasiera oso bizkorra izan zen. Raramuriek (Mexikoko indigenek) sentsazioen bitartez egiten dute korrika eta lasterketa hasie-

“**Mundua eta hainbat kultura, gastronomia eta lasterketa ezagutzeko aukera ematen dit saioak**”



Iturrieta ‘Chiloe’ programako kameralariagaz.



**Zigor Iturrieta Ruiz**  
Mendi korrikalaria

**Zornotza | 1974**

Polonian hirugarren postua lortu zuen Iturrietak.

teran ziztu bizian joaten dira. Beraiekin korrika egitea ikusgarria izan da, beraien arropa eta txankleta bereziekin egiten baitute korrika.

**Zer ematen dizu ‘Chiloe’k?**

Bidaiatzeko aukera bat emateaz gain, mundua eta hainbat kultura, gastronomia eta lasterketa ezagutzeko aukera ematen dit saioak. Gastronomia eta kirola uztartu ahal izatea ikaragarria da; nire lan perfektua da. Egia esan, gogorra da, baina asko betetzen nau. Toki guztietan turismo bulegoekin lan egiten dugu, eta gidari baten bitartez gauza asko ikusteko eta ikasteko aukera izaten dugu, bidaiaria espres baten bitartez. Gainera, bertako jakiak jateko aukera izaten dugu. Alde horretatik, pagotxa bat!

**Nolako da zure bi zaletasunak uztartu ahal izatea?**

Kirola eta gastronomia uztartzea neurri otu zitzaidan. Alberto Arizkorrera Chiloe-ko eta Txorieneko zuzendariak zerbait berria egitea gura zuela esan zidan. Orduan, kirol bidaiak modan zeudela eta horregaz zerbait egin ahal genuela esan nion. Hortik sortu zen saio berezi honen ideia. Lasterketak erakustez gain, saioko ikusleei nora joan daitezkeen, zer bisitatu dezaketen

“**Ikusleei nora joan daitezkeen, zer bisitatu dezaketen eta zer jan dezaketen erakustea du helburu saioak**”

eta zer jan dezaketen erakustea du helburu Chiloe-ko.

**Lasterketa bat lehiatzen egotea eta, gainera, hori grabatu behar izatea gogorra da?**

Oso gogorra da. Lasterketa batera joaten garenean, probaren aurretik lasai egoten gara kirolariok, eta jatekoa ahalik eta gehien zaintzen dugu. Baina Chiloe-ko ez da horrelakorik gertatzen. Joaten garen herrialdeko gauza tipikoak jaten ditugu, eta, gero, denbora guztian gora eta behera ibiltzen gara. Goizean goiz hasten gara grabatzen, 8:00etan, eta 20:00etan amaizen dugu. Tartean, posible bada, entrenamendua egiten dut.

**Zein izango da Zigor Iturrietaren hurrengo erronka?**

Hurrengo helburua saioko hirugarren proba izango da. Alemanian, Ford izeneko irla batean egiten den maratoni berezi batean hartuko dut parte. Asfaltoan korritzen da.

## Asteko kirolaria



**MANEX REGILLAGA ELIAS**

**Elorrio, 2005**

# “Ni baino nagusiagoen kontra jokatzeko ohituta nago eta ez dit beldurrik ematen”

Elorriok 12 urteko harribitxi bat du xakean eta Manex Regillaga deitzen da

**kelari elorriarrak. Aurten nagusien Euskal Ligako Ohorezko Mailan aritu da Abadiño Xake Taldeagaz. Hain gaztea izanda hori lortzen duen bigarren xakelaria da. Joan zen asteburuan, berriz, Urretxuko txapelketa irabazi zuen.**

**Zelan joan zen Urretxuko txapelketa?**

Zazpi partida jokatu nituen finalera heldu aurretik. Ligaxkako partida bat eta finalerdietako ber-

dindu egin nituen. Finalerdietakoan berdinketa hausteko jokatu genuen, ordubeteko partida barik, 15 minutuko. Denbora gutxian hartu behar dira erabakiak eta batzuetan ez da asmatzen. Partida amaitu genuenean, joko-denborako 20 segundo bakarrik geratzen zitzaizkidan.

**Finalean iazko txapelduna menderatu zenuen. Non egon zen gakoa?**

Berak amu bat jarri zidan, baina laster sumatu nuen tranpa, eta

kontraeraso batez abantaila hartu nion. Hor egon zen gakoa.

**Zu baino adin askoz nagusiagoko aurkarien kontra aritzeak errespetua sortzen dizu?**

Egia esanda, ni baino nagusiagoak diren kontra jokatzeko ohituta nago eta ez dit beldurrik ematen.

**Espainiako txapelketetan hainbat bider izan zara. Benjaminetan hirugarren geratu izan zara eta kimuetan bederatzigarren. Zelako esperientziak dira?**

Lehenengo urtean errespetua sortzen du, baina gero ohitu egiten zara. Askok gustatzen zaizkit lagun berriak egiten dituzulako eta giro ona egoten delako.

**Nori eskaintzen diozu Urretxuko txapela?**

Fernando Bengoetxea Moralesi. Gaixotasun batek eraginda hil zen. Ziur naiz dagoen tokian dagoela lagundu egiten didala partidetan. Nafarroako Mikel Gurea taldean jokatzeko hasi nintzenean ezagutu nuen. Espainiako lehenengo txapelketara beragaz joan nintzen eta oso ondo konpontzen ginen.

**Zeintzuk dira hurrengo erronkak?**

Aste Santuan kadete mailako Euskadiko txapelketan arituko naiz. Bizkaikoan bigarren izan nintzen.

**Kazetariak koaderno ireki eta boligrafoari tapoia kendu orduko Rubik kuboa egin du Manex Regillagak. Adimen pribilegiatua du xakean?**



# Azkenean Biran parte hartuko du Bizkaia Durango-Euskadi Muriasek

Antolatzaileen gonbita jaso dute, bai Bizkaia Durango-Euskadi Muriasek bai Sopelak



Aurten WWT (Women's World Tour) kategoría izango du Emakumeen Birak.

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Bizkaia Durango-Euskadi Muriasek eta Sopela taldeek Emakumeen Biran parte hartuko dute azkenean. Euskal talde biak parte-hartzaileen hasierako zerrendan sartu ez izanak hautsak harrotu zituen, eta Birako antolatzaileek asteon jakinarazi dute gonbita bidaliko dietela. Beraz, maiatzaren 19an hasiko den Women's World Tour mailako itzulian parte hartuko dute.

Agus Ruiz Birako antolatzaileetakoa adierazi duenez, "zerrenda ez zegoen itxita" eta orain euskal talde biak gonbidatu dituzten mo-

duan beste bi ere gonbidatu dituzte. Kanpo faktoreek ere eragin dute. Eusko Jaurlaritzako Jon Redondo Kirol zuzendariak eskatuta, batzartu egin ziren eta euskal taldeak gonbidatzeko eskatu zien. Horrez gainera, Birako babesle nagusiak

**Birako babesle nagusiak zein Jaurlaritzako Jon Redondok taldeak gonbidatzeko eskatu diete**

ere eskaera berdina egin diela onartu du Ruizek.

Talde biak hasierako zerrendan ez sartuta "hausnarketa bat eragin" gura zutela adierazi du. "Hemen Women's World Tourreko lasterketa bat gura badugu, ondorio denekin izan behar du. Azkenean, euskal txirrindularitzaren irudia kaltetuta irten daiteke", adierazi du.

Emakumeen Birak WWT kategoría izango du, lehenengoz, aurten. Legazpian hasiko da, maiatzaren 19an. Lau etapa izango ditu eta azkena, maiatzaren 22koa, Iurretan hasi eta amaituko da.

## "Egiten dudana gozatzen jarraitzea da niretzat erronkarik handiena"

**MENDIA • J.D.**

Maite Maiora mendi korrikariak (Mendaro, 1980) bere kirol ibilbidea errebasatuko du, astelehenean, Zaldibarko mendi astearren barruan. Hitzaldia 18:00etan hasiko da, liburutegi zaharrean.

Mendian korrika zein ametsetan ikus-entzunezkoa eskainiko du lehenengo. "Nire lehen pausoak non eman nituen



MAITE MAIORA

eta nora iritsi naizen jasozen du. Momentu onak, txarrak, esperientziak eta bizipenak azaltzen dizkiot jendeari", adierazi du Maiorak. Urteak joan ahala garaipenez betetako palmaresa osatu du Maiorak, baina korrika egiteko motibazio nagusia beste bat du. "Niretzat erronkarik handiena egiten dudana gozatzen jarraitzea da. Tituluak garrantzitsuak dira, baina bizipen gozoei lotuta daude; bestela, ez dute zentzurik".

## Adituaren txokoa

Oihana Azkorbebeitia Urizar  
Mendi lasterketak



### Martxoak 8 dela-eta

Martxoak 8 dela-eta, egunotan Euskal Herrian eta mundu osoan ekimen ugari izan dira emakumeak gizartean dituen papera eta garrantzia aldarrikatzeko. Nik, emakume kirolari gisa, Bilbon AEK-k ikasleentzat antolatutako mahai-inguru batean hartu nuen parte. Bertan, lau neska kirolari elkartu ginen: Atheticeko Ane Bergara futbolaria, Arkote taldeko Matxalen Zapirain arraunlaria, Mainer Unda borrokalari ohia eta ni neu. Ikasle mordoaren aurrean, bakoitzak gure kirolari buruz hitz egin genuen, eta, besteak beste, kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea jorratu genuen. Matxalenekin kontatu zigun arraun munduan alde itzela dagoela nesken eta mutilen artean, sari ekonomikoak askoz baxuagoak direla emakumeen kasuan eta neskek egin beharreko distantzia zeozer laburragoa izaten dela, ekitaldia gehiegi ez luzatzeko (jendea aspertu egiten eiz da). Futbolaren kasuan, ondo dakigu denok zein nabarmena den aldea. Mainerrek kontatu zigun emakume bat borrokan ikustea oso arraroa zela lehenago, borroka librea gizonen kiroltzat hartzen zela, baina, zorionez, gaur egun nahiko parekatuta daudela biak. Mendiko lasterketetan, nik ezagutu dudana gozatzen behintzat, ez da inoiz alderik egon. Neska zein mutil, kilometro kopuru berbera egiten dugu, sariak berdina dira eta berdin animatu gaituzte beti. Neska gutxiago gaudela da alde bakarra, baina ziur nago denborarekin neska gehiago animatuko direla.

Oraindik lan handia dago egiteko kirolean berdintasuna lortzeko, baina, zorionez, apurka bada ere, pausoak ematen ari gara.

## "Motibatuta gaude eta gogo handiagaz joango gara Vigoko neurketara"

Ohorezko B Mailari eusteko, garaipena lortzea funtsezkoa du Durango Nissan Gaurak



Aimar Urienek aurten du lehenengo urtea taldeko kapitain.

**ERRUGBIA • J.D.**

Durango Nissan Gaurak amildegia ertzean dago. Liga amaitzeko jardunaldi biren faltan, Ohorezko B Mailatik jaitzi egin daiteke. Postu bat gorago, larri dabil Vigo taldea ere. Asteburuan talde biek elkarren kontra jokatu dute, Galizian.

DRTk 15 urte daramatza Ohorezko B Mailan eta jokalariek argi dute egoera zein den. "Hil ala biziko neurketa da. Galtzen badugu, zail izango dugu maila salbatzea",

adierazi du Aimar Urien kapitainak. "Gogotsu entrenatzen gabiltza, motibatuta gaude eta gogo handiagaz joango gara Vigoko neurketara. Dugun dena jarri behar dugu zelaian", gehitu du.

Zelan heldu dira egungo egorara? Batetik, eskuan izan dituzten puntu askok ihes egin diete sarritan. "Batuetan, bigarren zatian desagertu egin gara. Eibarren kontra 20 puntu baino gehiagoko aldeagaz irabazten joan eta galdu egin genuen. Uribealdea, Bera Bera... kontrolpean genituen partidua galdu ditugu. Orain puntu horien falta sumatzen dugu", dio Urienek. Beharbada, esperientzia falta sumatu dute une konkretu batzuetan. Izan ere, talde gaztea dute. Batzuetan besteko adina 22 bat urtekoa da.

**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. - 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

**//AUKERA**

**AUKERA.** 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela. Terraza, ganbara eta garajea. 145.000€-

**ZALDIBAR.** Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Ilogailua. 129.000€

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**

**ALLUITZ.** 3 logela, bat terrazarekin. 2 bainugela, sukaldea eta esekitokia. Egongela handia terrazarekin. Ganbara eta garajea. 240.000 €

**TABIRA.** Nahiko berria. 2 logela, 2 bainugela, sukaldea eta esekitokia. Egongela, ganbara eta garajea. Terraza. EGUZKITSUA. 245.000€

**ASK. ETORBIDEA.** Nahiko berria. 3 logela. 2 bainugela, sukaldea eta esekitokia. Egongela, ganbara eta garajea. Terraza. 66m².

**DURANGO.** 2 logela, bainugela eta egongela. kanpoaldea. Berriztatua. 110.000€

**MATIENA.** 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Bizitzen sartzeko moduan. 79.600€

**IZURTZA.** 2 logela. Bainugela. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta txakurrentzako txabalola. 72.000 €

**IURRETA.** 2 logela. Bainugela, sukaldea eta egongela-jangela. Berogailua. 114.000€

**LANDAKO (TXIBITENA).** 100m. 4 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela handia. Ganbara. Garajea. 203.000 €

**MADALENA.** Duplexa egiteko aukera. Azken pisua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela. Garajea. Orain: 260.000€

**ABASOLO.** 107m. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela eta bi terraza. Ganbara eta garaje itxia. 270.000€.

**ANTSO EZTEGIZ.** 90m. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela eta terraza. 165.000€.

**ASK. ETORBIDEA.** 65m. Nahiko berria. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela handia. Ganbara eta garajea. 175.000€

**SAN IGNACIO.** 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. Solarium. IGERILEKUA. 235.000€

**MONTEVIDEO.** Pisu altua. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela eta ganbara. 146.000€

**J.A. AGIRRE.** Azken pisua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. 2 ganabra eta garajea

**F. J. ZUMARRAGA.** 130m. Nahiko berria. 4 logela (orain 3 logela.) hormako armairuekin, 2 bainugela. Sukaldea eta egongela handia. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta y garaje itxia bi kotxentzat (aukera). 285.000 €

**BERRIZ.** Txalet adosatua. 4 logela. 4 bainugela. Egongela bi terrazekin. Sukalde handia. Garajea eta txokoa. 410.000.-€

**LANDAKO ETORBIDEA.** 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. 226.000 €

**//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN**

**ARTEKALE.** 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. 94.000 € negoziagarri.

**LOCAL INVERSION.** 50m2. ACONDICIONADO. 85.000€.

**DURANGO.** TABERNA martxan. 95 m2. Orain 138.000 €

**ZALDIBAR.** Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.

**F.J. ZUMARRAGA.** AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000 €

**IBAIZABAL.** 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIUA. 500 €.

**//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN**

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 650€-tik hasita.

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**

**DURANGO.** Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.

**DURANGO.** Gasteiz bidean. Lau logelako pisu ederra, egongela balkoiarekin, sukalde ederra, komuna, ganbara, eta aparkalekua. Gela guztiak kalera, eta oso argitsuak.

**DURANGO.** Unda Torre kalean. Hiru logelako pisua, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz erreformatuta. Zartzeko prest.

**DURANGO.** San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

**BERRIZ.** Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken duplex-ak, logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea.

Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

**//LURSAILAK SALGAI**

**ABADIÑO.** 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA.** EUBA. Txalet bifamiliari bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalarekin.

**//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI**

**MAÑARIA.** Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO.** Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** Bº Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatze.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

**//BULEGOAK ALOKAIUAN**

**ABADIÑO.** 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

**//LOKALAK ALOKAIUAN**

**ALDE ZAHARREAN.** tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

**//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**

**MATIENA.** 460 m2-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

**www.inmoduranguesado.com**

**DURANGO** 2 logela, 1 komun

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 69 m2, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 balkoi eta ganbara

**192.000€**

**DURANGO** 4 logela, 1 komun, 97 m²

**FRAY JUAN DE ZUMARRAGA:** 97m2. 4 logela, bulegoa, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta galeria. Ilogailua, gas natural berogailua.

**220.000€**

**MATIENA** 3 logela, 90,6 m²

**MATIENA:** 90,60 m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia eta trastelekua. Berogailua eta igogailua.

**220.000€**

**DURANGO** 3 logela, 94 m²

**MONTEVIDEO:** Guztiz berriztatua 94m2, 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela.

**230.000€**

**DURANGO** 3 logela, 2 komun, 79,24 m²

**SAN IGNACIO:** 79,24 m2 eta eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, esekitokia, bainugela 2, balkoia, garajea eta trastelekua.

**235.000€**

**DURANGO** 2 logela, 2 komun, 73,56 m²

**ARRILUZEA:** 73,56 m2. 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia eta esekitokia. Garajea eta trastelekua.

**248.000€**

**DURANGO** 3 logela, 82 m²

**Komentu kalea** 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **310.000€** +BEZatik aurrera.

**310.000€**

**//DURANGO**

**ARTEKALE** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 235.000 € / E.E.Z=F

**ASK. ETORBIDEA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa 146.000 € / E.E.Z=F

**ASKATASUN ETORBIDEA** Logela 1, sukaldea, egongela, bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 175.000 € / E.E.Z=E

**LANDAKO ETORBIDEA** 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi. Garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E

**BARRENKALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 120.300 € / E.E.Z= G

**ERRETENTXU** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 210.000 € / E.E.Z=E

**ERRETENTXU** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia 205.000 € / E.E.Z=E

**EZKURDI** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F

**JUAN DE OLAZARAN** 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, 94m2 ko terraza. Garajea. Lehen 376.000 € Orain 369.000€/ E.E.Z=B

**KOMENTU** 3 logela, sukaldea, egongela, terraza 135.000 € / E.E.Z= G

**MIKELDI** 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna, 2 balkoi 200.000 € / E.E.Z= E

**MIKELDI** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, komuna, garaje eta kamarotea Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E

**MONTEVIDEO** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela 230.000 € / E.E.Z=F

**PLATERUEN PLAZA** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela. trasteroa. Garajea. 270.000 € / E.E.Z=E

**SANTASUSANOSTE KALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, kamarotea, garajea 240.000 € / E.E.Z=E

**URKIAGATORRE** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela 120.000 € / E.E.Z=F

**ZUMALAKARREGUI** 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela. Garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

**//ABADIÑO**

**FERIALEKU** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Garajea. Lehen 190.000 €/ Orain 175.000 € E.E.Z=G

**ZELETABE** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

**//BERRIZ**

**ELIZONDO AUZOA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, aseoa eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera 142.000 € / E.E.Z= G

**BERRIZBEITIA KALEA** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

**//ELORRIO**

**ELIZBURU KALEA** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garaje itxia 219.000 € / E.E.Z= E

**LABAKUA KALEA** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

**//OTXANDIO**

**GOMILAZ AUZOA** Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5hektareako lurzoruagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

**//NOBEDADEAK**

**DURANGO**

**MURUETA-TORRE** 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta trastero 290.000 € / E.E.Z=E

**SASIKOA** 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta kamarotea 220.000 € / E.E.Z=G

**ABADIÑO**

**ARLOZABAL** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Garajea eta trasteroa. Lehen 175.000 € / E.E.Z=E





**Botikak**

<b>BARIKUA, 16 - 09:00-09:00</b> <b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>	<b>ASTELEHENA, 19 - 09:00-09:00</b> <b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 17 - 09:00-09:00</b> <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-13:30</b>	<b>MARTITZENA, 20 - 09:00-09:00</b> <b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>ETXEBARRIA</b> Montevideo etorb. 2 - <b>DURANGO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>SAGASTIZABAL</b> Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>	<b>EGUAZTENA, 21 - 09:00-09:00</b> <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>
<b>BALENCIAGA</b> Ezkurdi plaza 8 - <b>DURANGO</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22 - <b>DURANGO</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>LARRAÑAGA-BALENTZIAGA</b> Berrio-Otxoa 6 - <b>ELORRIO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>EGUREN, ISABEL</b> Trañabarren 15 - <b>ABADIÑO</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-14:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b> <b>09:00-22:00</b>	<b>EGUENA, 22 - 09:00-09:00</b> <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>
<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>	<b>MELERO, ROSA MARI</b> San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>SANCHEZ, MIREN ITZIAR</b> Urbitarte poligonoa, 4 P8 - <b>ABADIÑO</b>
<b>DOMEKA, 18 - 09:00-09:00</b> <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GOIRIA, MARI CARMEN</b> Sabino Arana 6 - <b>ZORNOTZA</b> <b>09:00-22:00</b>	<b>IRUARRIZAGA, KARMELE</b> San Miguel 15 - <b>ZORNOTZA</b>

**Zorion Agurrak**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com / facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ander eta Mirari (711. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Haizea!** Zortzi urte beteko dituzu bihar, laztana. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez!!



Zorionak, **Martin eta Arantza!** Mosu asko hemendik, eta multos beijos itsasoaren beste aldetik!



25 moxu oker, beti eskeite dabilkiun Tartzanarentzat!



Zorionak, bikote, familiaren partez eta batez ere zuen ahizpatxo Udaneren partez. Pila bat muxutxu.



Zorionak, potxolo, familia osoaren partez. Ondo pasa eguna! Jarraitu beti bezain alai, **Peio!**



Zorionak! Zure 88 urteurrena txokolatada eder batekin ospatuko dogu. Besarkada eta mosu handi bat zure falimixa guztixan partez.



Hurrengo astelehenean gure **Maddik** 9 urte betetzen ditu. Zorionak etxeko guztion partez. Jarraitu horrelakoa izaten.



**Ametzek eta Sugarek** 8 urte ein ebietan astelehenean. Zorionak eta mosu potolo bana etxekuen partez!



Gaur **Uzurik** urtetxo bat beteko dau! Zorionak, txikitxu!



**Nagore** 9 urte egiten ditu gaur. Amama Arantzi, ama, aita, Ane eta lehengusu-lehengusinen eta osaba-izekoren partez, zorionak eta ondo pasau.



Zorionak, **Nikole eta Beñat.** Musu handi bana familia osoaren partez!



Abadiñoko **Malen Etxegaraik** bost urte bete zituen atzo. Zorionak eta musu handi bat familia guztiaren partez.



Martxoaren 19an **Iratik** 7 urte egiten ditu eta martxoaren 22an **Ekainek** 5 urte. Jarraitu beti bezain alai! Zorionak amatxo, aitatxo eta amama-aititen partez. Muxu haundi bana!



Zorionak, **Aiala**, zure familiaren partez. Egun zoragarria pasa dezazula.

**ALBARDI HARATEGIA**

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



# “Zaletasuna falta da, eta horretan eragiteko lanean ari gara zesta-punta eskolak”

Pedro M<sup>a</sup> Garcia ‘Garita’ren etxean oso bizirik egon da beti zesta-punta; 70eko eta 80ko hamarkadetan zesta-puntaren urrezko garaia ezagutu zituen zaldibartar honek

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Abenduan Ezkurdi Jai Alai pilotalekuko taberna utzi zuen, 24 urteren ostean. Hala ere, oraindik ez du lotura eten frontoiagaz. Jai Alai zesta-punta eskolako ardura darma 70eko eta 80ko hamarkadetan AEBetan zesta-puntalar profesional moduan jardun zuen zaldibartarrak. Martitzen eta eguenetan du ordua jokalar gazteekin. ANBOTOK Jai Alai frontoian jarri du hitzordua beragaz, eta penaz aritu da zesta-puntak bizi duen egoeraz.**

## Zer da zuretzat Jai Alai frontoia?

Uf! 13 urtegeaz hasi nintzen jokatzen frontoi honetan. Zaldibartik etortzen nintzen entrenatzera. Bigarren etxea dut hau. Orduak eman ditut hemen, baina pozik!

## Taberna utzi zenuen abenduan. Frontoitik ere jubilatuko zara?

Ez dakit, ba! Banabil ia erreleboa hartzen didaten, baina...

## Berezia da Jai Alai frontoia?

Bai! Txikia da, partiduak ikusteko onena. Pilota entzuteko ere oso ona da, pilotariet ere hala diote. Jai Alain 800 bat lagunentzako lekua dago, baina inoiz 1.200 ere batu dira. Ataripe honetan, etxebizitzek ingururatuta, harrituta geratzen dira asko hemen frontoia dagoela-eta.

## Telebistan zezenketak ikustera ere etortzen ziren batzuk Jai Alai frontoira...

Bai! Tabernako telebistan zezenketak jartzen nituen. Beti gustatu zaizkit. Koinatuagaz joan nintzen lehenengo zezenketa batera, Bilbora, 14 urtegeaz.

## Zesta-puntaren saga mitikoa da zuona...

Alfredo lehengusuak eman zidan nire lehenengo zesta, Garitonaindia hura ere, eta, nire seme biak AEBetan ibiliak dira zesta-puntan —biak han jaiotakoak dira—. Gazteena uz-

tailean etorri zen eta hemen jokatuko du udan. Beste lehengusu bat eta haren semea esku pilotan ibili dira. **Jarraituko du sagak?**

Bederatzi urteko iloba ere badator atzetik. Neugaz hasi zen, sei urtegeaz. Gero, Mutrikuko eskolan hasi zen. Urte batzuk daramatza han. Badaukat urte biko beste ilobatxo bat ere, eta harek ere badu berarentzako zesta txiki bat —zesta-puntan aritutakoa da horren beste aitita ere—. Gure etxean oso bizirik egon da beti zesta-punta. Ez dut uste guk bizi izan genuen moduan biziko dutenik gure atzekoek; nahiago nuke hala balitz, baina sasoi haiek ez dira bueltatuko. Pena ere ematen dit. Otsailean Miami joan nintzen eta 40 pertsona zeuden frontoian. Jarri duten Kasinoan zeuden denak. Barrena mugitzen du.

## 70eko eta 80ko hamarkadetan AEBetan jokatu zenuen. Nola gogoratzen dituzu sasoi haiek?

Zesta-puntan jokatzen uneoro. Dome-

nituen, baina gogoan dut 15.000 lagun batu zirela behin Miamin, frontoian. 1969an joan nintzen AEBetara, eta 19 urte egin nituen han. Dena den, zesta-puntan jokatutako azken bost urteetan, urte erdi

Hartford-en (Connecticut) egiten nuen, eta beste erdia hemen.



**Pedro M<sup>a</sup> Garcia Garitonaindia ‘Garita’**  
Ezkurdi Jai Alai zesta-punta eskolako presidentea  
**Zaldibar | 1950**

ketan jai izaten genuen; bestela, gauero jokatzen genuen. Astelehen, eguazten eta zapatuetan, eguerdian ere bai. Orlandon lau urte egin nituen, eta horren ostean beste sei Miamin. Bi saio izan ge-

## Hala ere, aurretik ibili zinen profesional mailan?

Bai. Bilbon ibili nintzen, eta 16 urtegeaz Kanarietara joan nintzen. Ia urte eta erdi egin nuen han, etxera etorri gabe. Baina pozik ibili nintzen. Egunero jokatzen nuen. Ondoren, Zaragozara joan nintzen. Frontoi horiek ikasteko balio izan zuten, gero AEBetara joateko. Diru gehiago irabazten zen han. Udan hona etortzen ginen jokatzerara; onenek jokatzen zuten. Udan jende asko baten zen hemengo frontoietan.

## Zesta-puntaren urrezko garaia ezagutu zenituen.

Bai. Duela 30-40 urte 500 bat pilotari ibiliko ziren AEBetan, ia denak hemendik joandakoak. Orain, 60 daude. Orduan, 15 frontoi zeuden; orain, bi geratzen dira. Urte osoan egoten dira zabalik. Elkarte bat sortu guran, 1988an urte bi iraun zuen greba egin zuten zesta-puntalariet eta frontoi guztiak itxi ziren; afizionatuek zabaldu zituzten gero berriro, baina... Era berean, bestelako apustu jokoak hedatzen joan dira eta horrek frontoietan eragin du. Sasoi batean, frontoian eta zaldi lasterketetan baino ezin zen apustu egin.

## Zer egin behar da zesta-punta indartzeko?

Zaletasuna falta da, eta horretan eragiteko lanean ari gara zesta-punta eskolak, Xistera elkartearen bitartez. Ikastetxeetan ari gara nola jokatzen den erakusten; ea baduen eraginik.

## Durangon bada zesta eskola. Nolakoa da harrobia?

Batez ere, Markinan eta Mutrikun ari dira zesta-puntan. Hemen, gutxiago. Baina, non jokatzen? Afizionatu mailan jokatzen dira txapelketak, baina profesional mailan lauzpabost partidu baino ez urtean. Esku pilotak baino tradizio handiagoa izan du zestak hemen, baina telebistan ikusitakoa gura izaten dute gatzetxoek.

## Lauhortza

Sergio Murillo Corzo  
Ekonomialaria



## Agintariena

Durangaldeko elizateetan egin, eta gorde, izan da Dantzari-dantza osotzen daberen dantzen zikloa. Horren barruan agintariena izenez ezagutzen dana dantzatu ohi da lehenengo.

Tradizio errotu honek zintzo iraun dau, garaian garaiko gizartera moldatuz, elementu zaharkituak edota desagokiak alde batera itziz, eta gizarateak onartutako beste batzuk bereganatuz. Horren adierazle behinena dogu, emakumeek ere tradizio horretan dantzari jardutea gaur egun. Historiaren joanak, tradizio honetan izandako isladak, irauteko garatu beharrean gagozala jakin arazten deusku, erroan garenari muzin egin barik.

Herri lez, bidelagun izan dogu beti gure hizkuntza, euskera, eta gure esamoldeetan islatuta aurkitzen doguz iraun daberen eta irauten lagundu deuskuen ikuskera batzuk. Agindu hitzak dakar gure hizkuntzaren irakasbide horreetako bat. Izan ere, agintzea berba emotea da, norbere gizarateekin konpromisoa hartzea, norbere buruari betebeharrak jartzea. Horixe dauka agintariena-k erroan gordeta; konpromisoa hartu daberen pertsonen dantza.

Durangaldean lehenago gertatutakoek moldatu eta eraldatu dabe tradizioa, errotik aldatu barik, bere izaerari eutsiz. Egunotan, pentsiodunak eta emakumeak ibili dira dantzan, zahartzen doan gizarate bardinzaleago baten adierazgarri. Bardintasuna eta belaunaldien arteko alkartasuna agintzeko garaia da gaurkoa, bakoitzak bere buruari betebeharrak jarritz, ziklo barri baten dantzan.

**AUZORIK AUZO 2018**

**Iurreta**  
Euzko Legebiltzariaren

**Martxoak 17 - Bakixan auzoan**  
**18:00 XABI ABURRUZAGA**  
eta jarraian auzokideekin luntx xume bat

**Apirilak 14 - Oromiño auzoan**  
**18:00 KHERAU**  
eta jarraian auzokideekin luntx xume bat

**Maiatzak 19 - Amatz auzoan**  
**18:00 HERRI MAITE AKORDEOI TALDEA**  
eta jarraian auzokideekin luntx xume bat